# OSPA

## JUAN LUIS ZABALA



Juan Luis Zabala

# Ospa

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2017 Juan Luis Zabala
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko apirila
Edizio hau: 2017ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

# Hiru aste Wim Wendersekin

Istorio hau Wim Wendersen telefono dei batekin hasi zen.

– Alo, Wim Wenders naiz, zinemagilea –azaldu zidan, alemanez–. Baduzu nire aditzerik, uste dut.

Lagun baten broma izan behar zuela pentsatu nuen, baina ezin nuen ahotsa ezagutu. Adarrik ez jotzeko eskatu nion telefonoz bestaldeko ezezagunari.

– Barkatu, jauna –desenkusatu zen–. Normala da ez sinestea. Ez gaituzte aurkeztu. Baina, Berlinen bizi den euskaldun bati esker, badakit zerbait zutaz.

Patxadaz hitz eginez, nik deia ez etetea lortu zuen lehenik, gero zalantzak izatea, eta azkenik sinistea Wim Wenders zela.

Mikel Gotzon zuen izena Wim Wendersen Berlingo lagun euskaldunak, eta nire liburuaren berri ere emana omen zion. Irakurtzerik izan ez bazuen ere –ez baitago ezein hizkuntzatara itzulia–, bazekien liburuko ipuinetako batean bera, Wim Wenders, pertsonaia

gisa agertzen zela, Euskal Herrira etorria film bati begirako prestaketa lanetan, eta kontalariaren adiskide min egiten zela ipuinaren amaieran.

– Intuizio zoro eta indartsu bati jarraituz, nire hurrengo filma Euskal Herrian egingo dudala pentsatu dut, zure ipuinean bezala, eta zuk lagun diezadakezula horretan.

Niri sinesgaiztasuna adierazteko tarterik utzi gabe jarraitu zuen aurrera.

– Batetik, zure ipuinean nitaz egin duzun erretratuak pentsarazten dit elkar ondo ulertuko dugula. Bestetik, Mikel Gotzonek esan dit gizon diskretua zarela, eta fidatzekoa.

*Alice in den Städten*, *Paris, Texas* eta *Der Himmel über Berlin* filmatu zituen garaiko grina berreskuratzen ari zela esan zidan, eta horrek bere burua itsuitsuan intuizioaren esku uztera bideratzen zuela.

– Urteak dira ez naizela horrela sentitu, eta ezin dut aukera hau alferrik galdu.

*Bartleby* bat naizela diote, liburu bakarra argitaratu dudalako, baina niri zaila egiten zait Herman Melvilleren Bartleby izkribatzailearen esaldi ospetsua ahoskatzea: “Aukeran nahiago ez”.

– Bi aste barru joango naiz horra. Deituko dizut berriz.

Loiuko aireportutik deitu zidan bi asteren buruan, Euskal Herrian zegoela esateko.

Donostiako Parte Zaharreko kafetegi batean elkartu ginen biharamunean. Nire zain zegoen, txokolate bat hartzen.

Paradoxikoa badirudi ere, urrutitik ezagutu ninduen, nik bera ez bezala. Ni euskal idazle ahaztu bat naiz, nobela bakarraren egilea, hura ere aspaldi samarrekoa eta ez sarri gogoratua; baina sarean aise aurki daiteke nire argazkia, eta hura begiratua izan behar zuen. Nik haren argazkia, berriz, mila aldiz ikusia nuen, edonork bezala, baina ilerik eta betaurrekorik gabe zegoen nire aurrean.

Eskua altxatuz kasu egin zidanean, zalantzakor hurreratu nintzaion.

– Ez dut nahi inork ezagut nazan. Inork ez du jakin behar Euskal Herrian nabilela.

Hizketan ari zela ezpainetan ageri zuen imintzioari erreparatzean, Wim Wendersen ezpainen antz han-

dia zutela baieztatu nuen. Bai, bera zen. Bera behar zuen.

– Filmerako istoriorik ez daukat oraindik –azaldu zidan gero, bere ondoan eseri nintzenean–. Pertsonaiarik ere ez, edo lekurik, garairik... Ezer ez. Ezer zehatzik ez behintzat. Baina horrexek berak pentsarazten dit nire ibilbideko lanik garrantzitsuenetako baten atarian nagoela.

“Sortzaileen superstizio absurdoak”, pentsatu nuen.

– Gela bat hartu dut hotel batean eta hemen pasatuko ditut egun batzuk, aste batzuk beharbada, eta seguru nago zerbait sortuko dela.

Euskal Herria bakarrik eta bere kabuz ezagutzeko asmoa zuen, plan zehatzik gabe, gogoak eta zoriak eramaten zuten lekura joanez une oro. Baina tarteka nirekin solasaldi patxadatsuak izan nahi zituen, batez ere ikusitakoaren inguruko zalantzak argitzeko; baina baita ere, axola ez bazitzaidan, nire ikuspegiaren berri jakiteko.

– Ez dizut besterik eskatzen. Ez dizut trabarik egingo.

Argumentu zehatzik ez bazuen ere, askotariko paisaiak batuko zituen *road movie* bat filmatuko zuelakoan zegoen, biharamunean, kafetegi berean, azaldu zidanaren arabera.

– Interneten eta liburuetan ikusi dudanez, hemen denetarik duzue oso espazio txikian. Pixka bat mugitzea nahikoa da paisaiaz erabat aldatzeko.

Aho bizarrik gabe esan nion orduan zer egin behar zuen arrakasta ziurtatzeko: Jean Faugeres eta Maurice Champreux-en *Au pays des Basques*, Orson Wellesen *The Land of Basques* eta Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquerten *Ama Lur* eguneratzeko irudiak hartu, eta dena Mikel Laboaren kantu zaharrekin, kantu berriekin eta lekeitioekin xume baina apain jantzi.

Gaitzitu egin zitzaidan orduan, argituz berak ez zuela Euskal Herriari buruzko film bat egin nahi, hemen girotutakoa baizik; Euskal Herriak berak gidatua ahal zen neurrian, baina ez Euskal Herriari buruzkoa.

– Ez naiz antropologo bat –ohartarazi zidan, haserre–. Ni zinemagilea naiz. Edo izan nahi dut behintzat. Berriro. Lehen bezala.

Etenik gabe egin zuen euria Wim Wenders eta biok elkartu ginen hirugarren egunean. Ez zidan bere etsipena ezkutatu.

– Gero eta galduago nago. Hara eta hona nabil, baina ez nau ezerk harrapatzen. Zure laguntza behar dut.

Laguntzen ari nintzaiola esan nion. Egunero elkartzen nintzela berarekin, eskatu zidan bezala.

– Baina orain beste zerbait eskatu nahi dizut. Eraman nazazu Euskal Herriko leku ez oso ezagun batera. Zeuk aukeratua, edozein delarik ere motiboa. Ez dadila turistikoa izan, baina izan dezala interes berezi bat zuretzat.

“Intuizio artistikoaren aginduak” ziren haiek, eta obeditu beharra zuen.

– Irtenbide bat behar dut, eta zuk eman diezadakezulako irudipena dut. Seguru nago eramaten nauzun lekuan aurrera egiten lagunduko didan zerbait topatuko dudala.

Bakartia naiz, baina ez dakit ezetz esaten. Bakartia baldin banaiz, izan ere, inor ez molestatzeko da, ezin dudalako eraman inori traba edo kalte egiten diodalako irudipena edo kontzientzia, eta bakarrik egotea

delako hori saihesteko modu seguruena, bakarra ez bada. Baina inork zerbait eskatzen badit, dena aldatzen da. Inork zerbait eskatzen didanean, eskatu zaidanari uko egitea da molestatzea, traba edo kalte egitea, edo horrela sentitzen dut nik behintzat.

Ezin izan nion esan, orduan ere, “Aukeran nahiago ez”.

Hala joan ginen Wim Wenders eta biok, euritan, Brinkolako tren geltokitik abiatu eta Barrendiolako urtegiaren ertzetik pasatuta, Amabirjinaren Silla deitzen duten parajera, gero handik Arantzazura jaitsi eta Donostiarainoko itzulera autobusez egiteko asmotan.

Eguraldiaren aurreikuspenek jasoko zuela bazioten ere, ez zuen atertu egun osoan, eta horren lekuko sufrituak izan ginen mendi buelta busti eta hotz hartan.

Aldapa gogorrean mantso-mantso goraka gindoazela, munduaz eta denboraz gaindiko intimitate amniotiko batean bilduta sentiarazten gintuen euripe hasieran zakar baina gero abegikor hartan hasi nintzaion, neure burua ere ustekabean hartuz eta harrituz, Wim Wendersi nire sekretuak kontatzen.

Kontatu nion txikitatik erakarri nindutela bakarka praktika zitezkeen kirolak, eta deseroso sentitu ohi nintzela, aitzitik, taldekakoetan, taldekideei huts egiteko beldurraren mehatxupean beti.

– Horrela hasi nintzen, artean hamar edo hamaika urte baino ez nituela, bizikletarekin etxetik gero eta urrutirago joaten. Ez nintzen nekatzen, ez nintzen beldurtzen, eta bizi-bizi sentitzen nintzen beti aurrera eginez eta neure burua paraje berrietara eramanez.

– Beti bakarrik? –galdetu zidan Wim Wendersek.

– Bai. Bakarrik beti, eta gurasoen isilean, artean gazteegia bainintzen, haien iritziz behintzat, errepidearen arriskuei aurre egiteko.

– Zergatik ez zinen txirrindulari talde batean sartu?

– Garai hartan ez zegoen artean ere txirrindulari talderik nire jaioterrian. Nahiko bizi ibiltzen nintzen, eta aldapa bat erritmo bizian igotzen ari nintzela auto bat nire atzetik sumatzen banuen beti pentsatzen nuen txirrindulari talde bateko zuzendaria edo teknikariren bat izan zitekeela, ni ikusi eta harrituta, pentsatuz fitxatu egin beharko ninduela...

– Baina ez zintuen inork fitxatu...

– Ez. Ez naiz inoiz txirrindularia izan.

– Eta zer nolako txirrindularia izango zinela uste duzu, inork zugan erreparatu eta bere taldera eraman bazintu?

– Auskalo! Ezin izango da inoiz jakin.

Arantzazuko ostatuko sutondoan, harainoko ibilaldi osoan bizkar-zorro barruan ozta-ozta lehor mantendutako arropak jantzita, inoiz munduan izan den erregerik aberatsenaren pare sentitu ginen Wim Wenders eta biok, salda beroa hartu ondoren txorizo egosi pintxo bana eta ardi gazta puska bat jaten, botila bat ardo lagun.

– Pater Handkeren liburuen eta zure pelikulen eraginez hasi nintzen alemana ikasten –aitortu nion.

– Hala esan zidan Mikel Gotzonek, bai. Zure liburu bakarra idatzi zenuen garaian, ezta?

– Bai. Zure pelikuletan neure burua ikusten nuen bete-betean. Batetik bestera inoiz ezer ukitu gabe mugitzeko modu geldo hura, tentsiorik gabe, denbora sentituz, eta denbora horretan norberaren gorputza lurra zapaltzen zeruaren azpian, lekuarekin eta unearekin bat eginda, travelling etengabe batean...

– Bitxia da. Ez zitzaidan inoiz bururatuko hitz horiek erabiltzea, baina ezagutzen dut nire lana zuk diozun horretan.

– Zure filmek orain bizi naizen moduan bizitzen lagundu zidaten.

– Nola bizi zara ba?

– Munduaren ondoan.

– Mundutik kanpo beraz.

– Bai. Baina ondo-ondoan, bere taupadak sentitzen.

– Haren parte izan gabe ordea. Ez dakit aukera egokia den hori.

– Nik ere ez. Baina ezin naiz dagoeneko beste modu batean bizi. Eta nik maite dut bizitza nik bizitzen dudan moduan.

Bakarrik bizi naizela azaldu nion, eta hala bizi izan naizela azkeneko hogei urteotan, ama hil zitzaidanez geroztik. Ez dudala inoiz bikotekiderik izan, eta adiskideak ere urriak, parean egokitutakoak denak, ez neuk bilatutakoak.

– Ez naiz misoginoa –ohartarazi nion–, ezta misantropoa ere. Herabea naiz funtsean, edo besterik gabe alferra nahi baduzu, alferregia edozein harreman parekidek eskatzen dituen lanetarako.

– Eta izaten dituzu... harreman... ez-parekideak?

– Azken urteetan gutxitan. Horietarako ere alfertuta nago aspaldian.

Egun hartatik aurrera ondo moldatu ginen Wim Wenders eta biok. Konturatu orduko elkarren adiskide min eginak geunden, nire liburuko ipuin batean Wim Wenders eta ipuinaren kontalaria adiskide min egin ziren modu bertsuan. Horregatik, ostatu hartua zueneko hotela utzi eta etxera etortzeko gonbita egin nion.

Egun haietan, nire etxean debaldeko apopilo zelarik, nire eguneroko bizimoduaren berri zehatza izan zuen Wim Wendersek. Goizeko zazpietatik eguerdiko ordu bata arte aseguru etxe bateko bulegoan egiten dut lan, Bartleby izkribatzaileak eta Europa erdialdeko hainbat idazleren narrazio eta nobeletako pertsonaia nagusien antzera. Ondoren, lantokiaren ondoko jatetxean bazkaltzen dut, eta bazkalostean, berdin dio euria ari badu ere, hotzak atzamarrak izozten badizkit ere bai, bizikletan ibiltzera irten eta ez naiz itzultzen ilundu arte. Dutxa bat hartu eta gero, etxetik gertu dagoen jatetxe batean afaltzen dut, eta handik zuzenean noa lotara, liburu bat lagun. Asteburuetan ez dut lanik

egiten. Bizikletan ibiltzen, aitzitik, are ordu gehiago ematen ditut, gehienetan egun osoa, bideaz gozatuz beti, baina aldi berean ahalik leku gehienetara iristeko gogo grinatsu batek bultzatuta. Munduaren ondoan eta munduarekin bat eginda aldi berean, travelling etengabe batean.

Etxearen eta nire arropa guztien garbiketaz, gosaritarako behar izaten dudan janariaren erosketaz eta gainerako etxeko lanez Maria arduratzen da, Guatemalan jaiotako emakume bat. Arratsaldean etortzen da, eta ia ez dugu inoiz elkar ikusten. Edozer gauza behar baldin badu, telefonoz mintzatzen gara.

Gosaritan elkartzen ginen etxean Wim Wenders eta biok, gainerakoan nik kanpoan ematen bainuen ia egun osoa, lanean ez baldin bazen bizikletan ibiltzen.

– Nora joaten zara bizikletan egiten dituzun ibilaldi horietan? –galdetu zidan igande batean, elkarrekin gosaltzen ari ginela.

– Saiatzen naiz aldi bakoitzean leku berri batera iristen, inoiz iritsi gabeko leku batera. Eta halakorik ezin baldin bada, ahalik eta aspaldien egon gabeko leku bat izan dadila behintzat.

Logelara joan eta kutxa bat ekarri nuen handik sukaldera. Kutxatik barruan zeuden mapak eta koadernoak atera eta mahai gainean jarrita erakutsi nizkion. Nire ibilaldi guztiak nituen apuntatuta.

– Euskal Herriko errepide guztiak ibili, eta herri eta auzo guztietara iritsi naiz bizikletarekin, eta orain guztietara bigarren aldiz iristeko asmoa daukat. Nahiko aurreratua daukat bigarren aldi hori.

Harrituta zegoen Wim Wenders, mutu. Ni, berriz, harrotuta, berritsu.

– Inori inoiz kontatu ez diodan sekretu bat kontatuko dizut: sekulako dohainak dauzkat bizikletan ibiltzeko. Naturaz gaindiko kasu bat naiz. Pedalei indarrez eraginez orduak eta orduak emanda ere, ez naiz nekatzen. Nire kalkuluen arabera, Frantziako Tourra lehiatzera joango banintz irabazi egingo nuke.

– Eta zergatik ez dituzu dohain horiek erakusten?

– Mutil koskorretan ilusioa izan nuen, baina aukerarik ez. Orain, aldiz, ez nuke nahi. Pozik bizi naiz orain bizi naizen bezala, eta ez naiz txirrindulari izateak ekarriko lizkidakeen aldaketei eta eskatuko lidakeen sozializazio bortitzari aurre egiteko prestatua. Nire bizitza hemen dago.

Biharamunean, astelehenarekin, aurretik niri horretarako baimena eskatuta, Wim Wendersek alokatutako auto batean jarraitu ninduen atzetik arratsaldeko bizikletako ibilaldian. Arnasa estutu gabe, bi ordu eta laurden aski izan nituen Donostiatik Arantzazurainoko 84 kilometroak egiteko. Han elkarrekin mokadu bat jan ondoren, berriro ere ni bizikletan eta Wim Wenders alokatutako autoan, are denbora gutxiago behar izan genuen biok etxera itzultzeko, ordubete eta hiru laurden inguru, Arantzazu azken batean 700 metroko alturan baitago eta Donostia itsasertzean.

Handik aurrera arratsaldero nire atzetik etortzen hasi zen, kilometroak eta kilometroak eginez nire atzetik. Beti egin ohi dudan bezala, aldi bakoitzean leku batera jotzen nuen eta arropa ere guztiz aldatzen nuen, ahalik eta arreta gutxiena pizteko, ahalik eta anonimoen ibiltzeko errepidean.

Horrela ezagutu zuen Euskal Herria Wim Wendersek, auto barrutik, nire bizikletari jarraituz, travelling etengabe batean hura ere, ni bezala. Bazirudien ahaztua zuela Euskal Herrira ekarri zuen kontua, bere garairik oparoenetara itzultzen lagundu behar zion filma egiteko asmoa.

– Ez nau egundo txirrindularitzak erakarri, baina zu bizikletan nola ibiltzen zaren ikusteak liluratu egiten nau –esan zidan behin, sekulako pendizak gainditu ostean Artzamendi gainera iritsiak ginela.

Guztira hiru aste eman zituen Euskal Herrian, azkeneko biak nire etxean ostatu hartuta.

Joan behar zuen egunean, urduri nengoen, elkar agurtzeko unearen beldur. “Besarkada batez agurtuko ote dugu elkar, edo soilik bostekoa emanez?”, galdetzen nion behin eta berriro neure buruari. “Gizonen arteko musuak ere gero eta gehiagotan ikusten dira horrelako egoeretan”, pentsatzen nuen hurrena. Zein keinurekin agurtuko genuen elkar, horixe nuen kezka iturri nagusi.

Azkenean, bostekoa emanda esan genion adio elkarri, etxe atarian, bera Loiuko aireportura eramango zuen taxira sartu aurretik.

– Mila esker –esan zidan agurtzerakoan–. Deituko dizut egun batean nire asmoak zertan diren azaltzeko.

Taxia begien bistatik galdu zenean, lasai hartu nuen arnasa, elkar agurtzeko zeregin trabagarri eta

gogaikarri hura amaitua zelako behingoz. Baina hutsune baten zantzuak ere sentitu nituen barruan.

Urtebete da Wim Wenders etxetik joan zenetik, eta harrezkero ez dut haren berririk izan. Ez dit deitu, ez dit idatzi, eta ez da, nik dakidala behintzat, bere hurrengo pelikulari buruz ezer argitaratu inon.

Batzuetan pentsatzen dut niri ezer esan gabe, badakielako baimena eskatuz gero ez niokeela emango, niri buruzko pelikula egiten ari dela, edo behintzat kirolerako dohain ikaragarriak dituen baina horien berri inori ematen ez dion pertsonaia bati buruzkoa, Euskal Herrian girotua akaso, baina ez derrigorrez. Beste batzuetan pentsatzen dut hemendik joan zenean zinema gehiago ez egiteko asmo sendoarekin itzuli zela etxera.

Saia naiteke neu ere berari deitzen, edo berarekin nola edo hala harremanetan jartzen. Baina lotsak jango ninduke harekin hitz egitea lortu eta gero zertarako deitu diodan galdetuko balit.

Ez dakit zerbait gertatuko den edo ez, eta zerbait gertatzen baldin bada gertatutakoak nire eguneroko bizitza urratuko duen, nire eguneroko bizikleta ibilal-

diak, nire mapen jolas amaigabea, nire munduaren ondoan eta aldi berean munduarekin bat eginda bizitze gorabehera gutxiko hau, nire travelling etengabea. Baina nik ahal dudan bitartean behintzat neureari eutsiko diot. 60 urtetik gertu nago, eta beherakada fisiko oraindik leun baten lehen zantzuak igartzen hasia naiz, baina oraindik ere Frantziako Tourra irabazteko arazorik ez nukeela izango uste dut.

Zenbaitentzat sinestezina izango litzateke, nola bizi naizen jakinda, baina zoriontsua naiz eta halaxe jarraitzea espero dut urte askoan.

Beharbada etxean hartu nuen gizon hura ez zela benetan Wim Wenders ere bururatzen zait batzuetan. Baina Wim Wenders ez baldin bazen, nor zen?

# Harmonikaren erabilera egokia

> Eta beldurrak zer ezkutatzen duen
> atzeman nahi eta ezinean hazi nintzen,
> eta *Blonde on Blonde*n murgilduta
> egunei gehiago iraunarazten nien,
> zin egiten dut, askoz gehiago.
>
> NACHO VEGAS

Ezerezetik bat-batean sortua, arpegio hura, harmonika hura, doinu hura... Bob Dylan, *Blonde on Blonde* diskoko azken kantua. *Sad Eyed Lady of the Lowlands*. Zenbat denbora entzun gabe! Zenbat oroitzapen nahasian! Zenbateko tristura eta zenbateko indarra, dena batera. Zenbateko bizi-txertoa zainetan!

Autokarabanatik kanpora irten nintzen, kantua hobeto entzuteko gogoak bultzatuta. Bertan behera utzia nuen siesta egiteko asmoa, *de facto*, erabakirik gabe, barruko ahotsen inolako agindurik edo eztabaidarik gabe.

Aldameneko autokarabanatik zetorren kantua. Arropa zabaltzen ari zen andrea, bainujantziaren gainean brusa txuri arina jantzita. Harengana hurreratu nintzen, kantuak sorgindutako automata bat banintz bezala.

– Barkatu –atera zitzaidan barrutik, neu ere harritu ninduen ziurtasunez–. Baduzu zigarro bat? Ez dut erretzen baina, aizu, kantu honekin... Hainbeste urte dira entzuten ez dudala!

Zigarroa emateaz gain, arropa guztiak zabaldu eta gero bere autokarabanaren atarian kafe bat hartzera gonbidatu ninduen, *Blonde on Blonde* entzuten genuen bitartean.

Horrela ezagutu nuen Marta, abuztuko egun sargori batean, Mendigorriako kanpinean. Nire adin berekoa zen, eta gaztetan antzeko musika entzuna: Bob Dylan, Neil Young, Lou Reed, Janis Joplin, The Doors, Eric Clapton...

– Urte batzuetan, 14 edo 15 urte nituela, disko hau –*Blonde on Blonde*z ari zen– disko oso kutuna izan nuen –aitortu zidan–. Herriko mutil batekin maitemindu beharrean, diskoaren azaleko Bob Dylanekin maitemindu nintzen.

– Eta *Sad Eyed Lady of the Lowlands* kantatzen zizula egiten zenuen amets...

– Nola dakizu hori? –esan zuen irriz.

– Oso erraza da. Nik *Blonde on Blonde*ren azaleko Bob Dylan izatearekin egiten nuen amets, eta *Sad Eyed Lady of the Lowlands* kantatzeko eskatuko zidan neska bat aurkitzearekin.

– Harmonikarekin lagunduta?

– Beti eramaten nuen harmonika aldean!

– Uaaa! Zoragarria! –esan zuen barre algara apal batean.

Solasarekin gustura sentitzen nintzenez, goiari eusteko asmoz, *Blonde on Blonde*rekin neukan aspaldiko anekdota bat kontatu nion.

– Orain dela 30 bat urte, diskoa erosi nuen egunean seguru asko, Benito Lertxundik herriko areto txiki batean eman zuen kontzertu batean, lehenengo aulki-ilaran eseri nintzen, *Blonde on Blonde* binilozko LPa magalean nuela, azalean Bob Dylanen aurpegia agerian, Benitok oholtzatik argi ikusteko moduan.

– Eta... ikusi al zuen?

– Oholtzako aulkian eseri eta berehala. Diskoari begira, honelako zerbait esan zuen orduan: “Hara!

Hemen dugu-eta Bob Dylan! Hobe izango dugu berari uztea eszenategia”.

– Nola sentitu zinen?

– Zeharo lotsatuta.

– Kantaria izan nahi zenuen?

– Bai, hori zen nire ametsa.

– Eta...?

– Nahi izatea ez da nahikoa.

– Badakit, bai. Nahi izatea ez da ia ezertarako nahikoa izaten.

Autoironiaz baina samurtasunez mintzatu ginen gaztetako kantuez eta ametsez. Leonard Cohenen *Chelsea Hotel* etorri zitzaidan burura, neure buruari maiz aplikatutako esaldiak Martarentzat ere balio zuela iritzita: “*Itsusiak gara baina musika daukagu*”.

– Musikak ederrago sentiarazten ninduen –atera zitzaidan–. Edo, besterik gabe, sinpleago eta zintzoago esateko: guapoago.

Ez zuen asko iraun solasak. Martaren senarra eta bi alabak bizikletan egindako txangotik itzuli ziren, eta nik gure autokarabana jo nuen. Laster izango ziren han emaztea eta semea, kanpineko piszinatik bueltan.

Ez zuen asko iraun solasak, baina edertu egin nin-duela sentitu nuen.

Autokarabanan geneukan ordenagailu txikia piztu eta T Rex taldearen *Life is A Gas* bilatu nuen YouTuben. Ohean etzan nintzen, sabaiari begira. *“Baneukan zu planeta baten antzera maitatzea”*, kantatu zuen Marc Bolanek, *“baneukan zure bihotza izar bati lotzea...”*.

# Gola Galkargo

“Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”... Misterio harrigarria ziren marrazkirik nahiz bestelako apaingarririk gabeko idazkun haiek, errepide niretzat ordura arte ezezagunaren bi aldeetan ezarritako neurri askotako kartel eta paneletan. Soilaren soilez, bortitzak ere egiten zitzaizkion bidaiariari: “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”...

Jakin-minak errepide nagusitik irten eta herrian geldialdi bat egitera bultzatu ninduen, nahiz eta lo egiteko enkargatua nuen ostatua 30 bat kilometro aurrerago egon. Herri barruan ere bazter guztietan irakurtzen zen errepide bazterreko idazkun berbera, kartel, panel zein iragarki tauletan. Baita balkoi batzuen aurrealdean ezarritako maindire zurietan ere: “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”...

Autoa plaza ondoan aparkatu eta gertuen zegoen tabernan sartu nintzen. Garagardo bat eskatu, eta tabernako zerbitzariari galdetu nion ea zergatik zeuden idazkun haiek herri osoan zabalduta.

Herriko artista baten kontua zela azaldu zidan. Hirian ospea bereganatu eta han eroso bizi zelarik, gau batez izandako ametsean jasotako aginduak jarraituz, jaioterrira itzuli eta bazter guztiak idazkun haiekin jostea sartu omen zitzaion buruan. Eta baita lortu ere.

– Artelan bat dira, beraz, kartel eta pankarta horiek guztiak.

– Edo antzeko zerbait.

– Zer esan nahi duzu?

– Artistak ez dio artea direnik. Ez du onartzen definiziorik. Funtsean, ez du onartzen artista denik ere.

– Eta zer irizten diozue herritarrok? Ez dizue traba egiten hainbeste idazkun alferrikakok?

– Ni ez naiz hemengoa. Denboraldi baterako baino ez nago herri honetan.

– Baina zauden lekutik ondo igarriko duzu jendeak zer sentitzen duen.

– Hasieran bazen kontrako iritzi korronte edo mugimendu txiki bat edo, ez oso oldarkorra. Orain, ordea, isilduta daude kontrako ahotsak. Herriaren izena asko zabaldu da idazkunei esker. Dirua ere ematen du horrek, badakizu...

– Hala bada, ezin kontra egin.

– Askoz ere zailagoa da behintzat.

– Baina... Zer da “Gola Galkargo”?

– Inork ere ez daki. Artistak dioenez, berak ere ez. Ametsaren agindua omen da.

– Gola Galkargo?

– Gola Galkargo.

“Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”... Lelo bera behin eta berriro errepikatuz eta aldiro tonua aldatuz, barrez hasi ginen zerbitzaria eta biok. Konplizitate estu eta atsegin batean bildu ginen berehala, nahi gabe bezala. “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”...

Horregatik esan dezaket ziurtasun osoz zu ez zinela jaioko, ez zinela izango, edo ez zinela zu izango bederen, edo auskalo izatekotan ere zer izango ote zinen, hirian ospetsu egindako artista batek, amets baten aginduz, jaioterrira itzultzea erabaki ez balu, inguru guztia idazkun errepikakor eta absurdo haiekin estaltzera: “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”, “Gola Galkargo”...

# Nobelagile isila

Nahiz eta lehendik jakin eri handi zela, etsia emanda, doluz utzi nau Izaskun Amilibiaren heriotzaren albisteak.

Martuteneko ikastolan ikasle ginela ezagutu genuen elkar biok, umetan. Ez gara inoiz lagunarte edo kuadrilla berekoak izan, baina beti izan dugu elkarren berri. Azken urteotan, biok kanpoan bizi arren, sarri antzean egin dugu topo auzoan, Martutenen, nor bere familia bisitatzera edo Pilarretako jaietara etorritakoan. Kalean topo egin eta hizketan hasiz gero, nirekin literaturaz mintzatzen zen auzokide bakanetakoa zen; edo bakarra, zehatz esateko.

Bere nobelei buruz galdetzen nion beti, eta gustura mintzatzen zitzaidan haietaz. Azkenerako dozenatik gora izango ditu idatziak, nire kalkuluak okerrak ez badira. Bat bera ere ez argitaratua; eta bat bera ere ez, nik dakidala behintzat, bera ez den beste inork irakurria.

“Nik bazekinat nire nobelek irakurlea asperrarazi-ko luketen osagarriz eta ezaugarriz josita daudela, eta

irakurlearen interesa eta plazera pizteko behar direnez, aldiz, zeharo eskas”, esaten zidan askotan. “Nire nobelak txarrak ditun, ikaragarri txarrak”. Horregatik ez omen zuen inoiz haiek argitaratzeko ahaleginik txikiena ere egin, eta horregatik ez omen zuen nahi inork haietako bakar bat irakur zezan.

Hasierako nobelen berri eman zidanean, artean gazte ginela, ordurako poema liburu bat eta narrazio bilduma bat argitaratu izanak ematen zidan ustezko bermearen babespean, esan ohi nion nahi bazuen irakurriko nituela berak idatzitakoak, nire iritzia emateko eta, egoki irizten banion, argitaratzeko bidea egiten laguntzeko. Berak, ordea, zalantzari tarterik txikiena ere uzten ez zion ezezkoa eman zidan beti.

Nahiz eta inori ez eman irakurtzeko, nobelak idaztea beharrezkoa zitzaiola esaten zuen beti Izaskunek, ezingo lukeela aurrera egin bizitzan nobelarik idatzi gabe. Askatasun eremu hura premiazkoa zuen. “Irakurlearentzat akats, oztopo eta narda iturri liratekeen elementu, osagarri eta ezaugarriekin behar ditinat nik nire nobelak”, azaldu ohi zidan, gutxi gorabehera. “Nire nobelak behar bezain txarrak izan daitezen behar dinat, nik nahi dudan bezalakoak izango badira”. Nobelak berak nahi zuen bezalakoak izate horren

bila, berak zioenez behintzat, oso langilea izan zen beti, eta “obsesioraino zorrotza” bere buruarekin.

Bizitzako une gatazkatsu, kritiko edo mingarrienei nobela batekin erantzun zien beti: aitaren heriotza lehenik, neskato gizena izateak eragindako gutxieste mingarriak gero, gaztetako desamodioak, gaztetasunaren galera... Azkenaldian, duela bospasei hilabete Martuteneko jaietan ikusi nuenean esan zidanez, minbiziari eta hil aurreko oinazeei buruzko nobela bat idazten ari zen, ezohiko ikuspegi batetik kontatua, emakume baten bularrean hazten ari den tumore oraindik ere atzeman gabearen mintzoan oinarrituta. Ez dakit amaituko zuen nobela; eta ez dakit inork badakien ere.

Inori inoiz inondik inora ere irakurtzen utzi gabe, bere ordenagailuan ez ezik pendrive batean bilduta ere gordetzen zituen bere nobela guztiak, eta pendrive hura berarentzat kutun baten antzeko zerbait zela esaten zuen. “Estutasun larrietan, eskua poltsan sartu eta pendrivea ukitzeak indarra ematen zidan; lasaitu, kontsolatu eta adoretu egiten nain”.

Nobelak ordenagailutik ezabatu eta pendrivea Donostiako Udal Liburutegian gorde zezaten agindu omen du testamentuan, eta inork ez ditzala irakurri

hurrengo 48 urteetan, berak ehun urte beteko zituzkeen egunera arte.

Ezin izango ditut sekula irakurri, beraz, legea urratu gabe.

# Margolari ohia

Literatura kaltegarria da pinturarentzat.

Jose Luis Zumeta

Berak azken 40 urteetan egindako 500 inguru margolan mailutzar batekin kolpeka suntsitzen ageri da Jesus Mari Villar Andiano (Ordizia, 1946) YouTubeko bideo batean. Olioz egindako lan abstraktuak dira, neurri handi samarrekoak. Artearekiko luzaz izandako pasioa ahiturik, ekintza horrekin utzi zion Villar Andianok, joan den asteazkenean, margolari izateari. Artistaren iloba Josune Andianok bideo kamera batekin grabatu zituen txikizio ekitaldi horren irudiak, eta gero YouTubera igo. Lehen hamar egunetan 3.000tik gora ikusle izan dituzte dagoeneko irudi horiek. Egindakoaz damuaren arrastorik txikiena ere erakutsi gabe mintzo da margolari ohia.

– Zerk eraman zaitu zeure obra suntsitzera?

– Ahitu egin zait artearekiko sentitzen nuen pasioa, eta hori adierazteko modu bat da egin dudana.

Horrenbeste ilusioz eta neure barrutik horrenbeste jarrita egindako margolan horiek guztiek ez dutela ezertarako balio jabetu naiz. Horiekin liluraturik eman dudan denboran pentsatu, irudikatu, sentitu, gozatu eta sufritutakoek bai, horiek akaso balio dute, edo balio izan dute. Baina iragan dira horiek oro, eta iragandako horien arrastoa, inon izatekotan, neure barruan dago; margolanetan, aldiz, gehienera jota ere, horien zantzu baldar bakanen bat.

– Baina zure beste margolan asko saldu egin dituzu urte hauetan. Hauek ere sal zenitzakeen.

– Hasieran min handia ematen zidan neuk egindako margolana diru truke beste bati emateak, obrarekiko atxikimendu bizia sentitzen bainuen. Gero jabetu nintzen oreka egokia bila zitekeela sorkuntzaren eta salmentaren artean, eta obren argazkiak gordetzearekin etsitzen ikasi nuen. Bolada batean, gainera, 70eko hamarkadaren erdialdean, aldeko kritikak izan nituen eta margolan batzuk garesti samar saltzera iritsi nintzen. Neure neurrian, jakina; Zumeta, Goenaga, Ruiz Balerdi eta horien mailatik urrun. Azken urteetan, ordea, zokoratuta geratu naiz. Tira, pintura bera geratu da zokoratuta, eta pintoreen artean maila beherenekoak gara galtzaile nagusiak.

– Amorrarazten zaitu pinturak arte plastikoen beste adierazpide batzuen aldean indarra galdu izanak?

– Ez, ez nau amorrarazten. Baina, neurri batean, hilda sentiarazten nau. Garai batean niretzat horren garrantzi handia izan zuena hutsaren hurrengotzat jotzen dute gaur egun arte aditu eta artista gehienek. Niretzat, arteak beti izan du osagarri fisiko eta material bat, berezkoa eta ezinbestekoa, eta gaur egun ikuspegi hori, espiritu hori, galdua dago, pikutara joan da. Dena da digitala, birtuala, kontzeptuala; materiarik gabea eta, horrenbestez, niretzat bederen, arimarik gabea. Arrotza natzaio artearen munduari eta artearen mundua arrotza zait.

– Zure lanen inguruko erantzunik ezak eta harrera eskasak eraman zaituzte artearekiko pasioa galtzera?

– Ez. Nire lanen inguruko erantzunik ezak eta harrera eskasak bultzatu naute pasio falta hori argi eta garbi adieraztera, neure buruari lehenik, eta besteei gero, ekintza katartiko baten bidez. Bestela ere, pasioa berdin galduko nukeen, baina seguru asko merkatuaren zirkuluan bueltaka jarraitzeari utzi gabe. Areago: akaso, pasioa galdurik izanagatik, pasioa izaten jarraitzen dudala pentsatuko nukeen, neure burua ere

engainatuta. Nire lanen inguruko erantzunik ezak eta harrera eskasak neure buruarekin nahiz besteekin zintzoago jokatzeko adorea eman didate beraz.

– Hortaz, nola eta zeren edo noren eraginez ahitu zaizu pasioaren sua?

– Ez zait artearekiko pasioa ez ezeren eta ez inoren eraginez ahitu, berez baizik.

– Azalduko didazu hori?

– Gogoz eta ilusioz pintatu dut luzaz, gaztetan hasi eta duela urtebete ingurura arte, eta neuk bakarrik dakit zenbat bizipen izan ditudan horrekin lotuta. Artearen pasio horrek ere, ordea, pasio guztiek bezala, denbora mugatu batez baino ezin du iraun berezko argiz eta indarrez. Nire kasuan, bere goraldi eta beheraldiekin, 40 urte iraun du. Ez da gutxi, alajaina! Gehiegi, benetakoa izan dela sinisteko. Neuk ere neure burua engainaturik izango dut urte batzuetan.

– Artista gehienek hil arte jarraitzen dute lanean...

– Hara, Karlos Linazasororen *Beti eder dena* liburuko aforismo bat irakurriko dizut: “Maitasunean, pasioak samurtasunari ematen dio lekukoa; nago idazketan ere gauza bera gertatzen dela”. Eta artean ere bai, jakina. Artista baten bizitzan aldi jakin bat edo bakan batzuk baino ez dira izaten zinezko pasioarenak. Gai-

nerako aldietan, ohikeriari eta errazkeriari amore emanda egiten dute lan artistek, are aiseago merkatua lagun izanez gero; artea, maitale beharrean, senar edo emazte dutela. Eta ez nago horren kontra ni. Ezkontzearen aurka egotearen parekoa litzateke.

– Beraz, orain artekoak laburbilduz: artearekiko zenuen pasioa ahitu zaizu, berez, modu naturalean, eta margolanak suntsitu dituzu “ekintza katartiko” gisa.

– Hasieran ez zuen ekintza katartikoa izan behar, ekintza praktikoa baizik. Etxe azpiko garajea margolanez betea neukan, eta, behin margolan haiek ez zutela ezertarako balio erabakita, garajea hustu beharra zegoen. Baina ekintza praktiko horri kutsu katartikoa ematea bururatu zitzaidan. Azken batean, ez naiz alferrik artista izan 40 urtez, ezta? Margolanak suntsitzen gozatu egingo nuela iruditu zitzaidan, eta halaxe izan zen.

– Hasieratik izan zenuen buruan suntsiketaren ekintza bideoan grabatu eta irudiak YouTuberen bidez zabaltzeko asmoa?

– Bai zera! Nik ez nekien YouTube bazenik ere. Hori ilobaren ideia izan da. Iloba ere, bere moduan, artista da. Beste garai batekoa, beste eskola batekoa, baina

artista. Baimena eskatu zidan, eta ez zitzaidan ezezkorik emateko motibo bakar bat ere bururatu. Bere saltsetarako material egokia iruditu zaio nire margolanen suntsiketaren kontua. Hainbat azalpen eman dizkit bere interes hori arrazoitzeko, baina ez diot kasurik egin, ez baitut erabiltzen duen hizkera ulertzen. Artista bakoitzak bere mundua du, eta hori da benetan balio duena.

– Zer egin zenuten margolanen hondakinekin?

– Udal zerbitzuetako kamioi batek eraman zituen denak. Iloba ari da, bideo kamera lagun duela, horien jarraipen zehatza egiten. Hori ere ikusiko da akaso egunen batean YouTuben.

– Sekulako harrera ona izaten ari dira zure ilobak hartutako irudiak. Ikusle asko izateaz gain, foro askotan ari dira arteari buruzko eztabaidetarako abiapuntu bihurtzen. Zer pentsarazten dizu horrek?

– Ilobak erakusten dizkit irudien inguruan han eta hemen esaten eta idazten direnak, eta atsegina zaigu horiek umorez komentatzea. Ezagunagoa egingo nau neure margolanak suntsitzen emandako ordu laurdenak, haiek egiten emandako 40 urteek baino. Arteak oso berea izan du beti ironia hori.

# Sandraren baratzea

Sandra Lopezi buruzko nobela bat idaztekotan, aita zenaren baratzera itzuli zen arratsaldea kontatuz hastea litzateke egokiena.

Sandra 45 urteko eskultorea da arratsalde horretan, ez ospe handikoa, ez lehen mailakoa, baina bere lanbidean onarpena, estimua eta aitortza ere irabazitakoa, diru puska bat ez ezik. Donostian bizi da, baina hiru aste darama jaioterrian, Azkoitian, gurasoen etxean ostatu hartuta; aitaren osasuna, leuzemia baten ondorioz, okerrera egiten hasi zenetik.

Duela astebete eskas hil zen aita, eta biharamunean Donostiara itzultzekoa da Sandra. Azkoitian eman behar duen azken arratsalde horretan aitaren baratzera laguntzeko eskatu dio amak. Alargunak lur zati txiki hura saltzeko asmoa du, hasi behar duen aro berriari kemenez ekiteko onena izango delakoan, eta alabak azken aldiz ikus dezan nahi du.

Baratzera sartu aurretik, kalkuluak egin ditu Sandrak, amarekin solasean: 30 urtetik gora dira esparru hartan azkenekoz sartu zenetik. Sandra nerabeak ez

zuen maite leku hura, aitarekin lotutako konturik gehienak maite ez zituen motibo berarengatik: debekuekin lotzen zuen; neurri estu batzuen barruan bizi beharrarekin, beti huts egiteko beldurrez.

Baratzera iritsi orduko, sarrerako ate-hesia ikustean jauzi bat egin dio bihotzak kolkoan Sandrari, egur zatiak gurutzatzeko moduak –simetria osora inoiz iristen ez den oreka batean oinarritua– berak egindako hainbat eskulturatako formak gogorarazi dizkiolako. Burua altxatu, aurrerantz eta inguruetara begiratu eta egiaztatu du baratze barruko ate-hesiek sarrerakoaren eite bertsua dutela, halako aztarna bereizgarri edo *sinadura* moduko bat, bere eskultura askok dutenarekin ahaidetua.

Saiatu da lasaitzen, konparazioak hasieratik eragin dion ezinegona eta nahigabea arintzen, baina baratzean barneratu ahala gero eta estuagoa ageri zaio aitaren baratzearen eta bere eskulturen arteko kidetasuna. Beste inorako eta ezertarako baliorik gabeko material ugari dago han inguru berri batera egokitu eta, baliagarri ez ezik, aldez edo moldez eder eta adierazkor ere bihurtua; bere eskulturetan bezala. Gizakiak trazatutako lerro zuzen bakoitzak –ate-hesietako egur puskek bezala lursailen arteko mugek edo etxo-

lako oholek– zaindua dagoela erakusten duen keinu xume bat du agerian, baina nabarmenkeriaren arrastorik gabe betiere; bere eskulturetan bezala. Dena dago espanturik gabeko harmonia batera bideratua; bere eskulturetan bezala.

Arte kritikari eta komisarioek bere obrari buruz esandako guztia baliagarria izan daiteke aitaren baratzea deskribatzeko. Baita berak elkarrizketetan esandakoak ere. Zuretik ezpala beraz.

Okerrena falta da ordea: amaren ezusteko aitorpen bat, aitzurraren, eskuarearen, eskorgaren eta beste hainbat lanabesen ondoan, ohol meheekin eta gasolio bidoietako xaflekin eraiki eta uralita zaharrez estalitako etxolaren barruan sartutakoan.

– Ikusten al dun hau? –galdetu dio, bazterrean erdi-ezkutuan dagoen etzanlekua seinalatuz–. Ikaragarri gustatzen zitzaionan biok hemen etzatea. Etzan eta... jolastea. Hau gure maitasun habia izan dun askotan.

Amaren aurrean disimulatzen saiatu bada ere, beste jauzi bat egin dio bihotzak kolkoan Sandrari, duela ia 20 urte, lehiaketa publiko bat irabazita, autobideko restoparen ondorako egin zuen eskultura eskerga gogoan, Donostiatik gertu dagoena, Aritzetan.

Obra haren barruan txoko sekretu bat du atondua, kanpotik ezin ikusi den zulo txiki bat, bi lagun bertan etzan eta jolasteko aproposa, eta gustuko du bikotekideak edo unean uneko sexu jolaserako lagunak hara eramatea. Autobidean iragaten diren autoen ondoan horren bakartu eta seguru sentitzeak kitzikatu egiten du sexurako, eta baretu ondorenerako. Ez zuen berehala pentsatuko, baina aita zenak, orain jakin duenez, antzeko zerbait sentitzen zuen baratzeko etxolako txoko sekretu hartan.

“Irudika ezazu ihes egiten eta preso sentiarazi duen leku batetik etengabe urruntzen eta urruntzen ari den norbait; eta halako batean, antipodetan dagoela uste duelarik, muino baten atzean hasierako lekua ageri zaiola”, esaten du Sandra Lopezek duela hiru urte, *Berria* egunkarian argitaratzeko asmoz, bere etxean egin nion elkarrizketaren grabazioan. “Halaxe sentitu nintzen ni aitaren baratzera itzuli nintzen une hartan. Aitaren baratzea nire lan guztia aise gainditzen zuen arte obra erraldoia zela jabetu nintzen. Artista ibilbide oso bat nuen egina, beraz, nahiko arrakastatsua gainera, aitaren itzalpetik ihesi, zertarako eta aitaren

obra arrandian, handinahikerian eta azalkerian baino ezin gainditu zuen imitazio irrigarrikeriaraino faltsua taxutzeko”.

“Ezinegona sentitu nuen hasieran”, jarraitzen du Sandrak grabazioan, “baina etsipen gozo eta askatzaile bat nagusitu zitzaidan gero, azkenean onartu banu bezala ez nintzela artista, ez behintzat beste inor baino artistago; eta batez ere ez nuela artista izan beharrik, inor baino artistago nintzela erakusteko premiarik”.

Etsipenetik eratorritako askatasun hark loa galarazi zion gauean. Buruari bueltak ematen hasi zen, harik eta burutazio zoro batek “irri maltzur bat” ezpainetaratu zion arte. Isilean irten zen amaren etxetik, sukaldeko mahai gainean agurtzeko ohar labur bat utzita, esanez deituko ziola. Autoa hartu eta aitaren baratzera jo zuen lehenik, aitzurra hartzera. Donostiara joan zen gero, baina ez etxera, Miramongo parkera baizik, aitaren baratzetik hartutako aitzurrarekin eskultura bat puskatzera, parajearen bakardadeak eta gauaren iluntasunak babestuta.

Ricardo Ugarteren *Iru* puskatu zuen gau hartan, 1972ko eskultura apal bat: Zientziaren Museoaren paretari kanpoko aldetik itsatsitako hiru figura, elkarri lo-

tuak, burdinazko xafla nahiko meheez egindako laukiz osatutakoak. Sandrak xaflak paretatik askatu zituen aitzurraren laguntzaz, eta gero, lurrean zirelarik, aitzurrarekin zanpatu eta desitxuratu egin zituen.

“Gustatzen zitzaidalako aukeratu nuen Ricardo Ugarteren obra hura, txera berezia niolako”, dio Sandrak grabazioan. “Ederra izateaz gain, hain dago ikuslearen eskutik gertu, halako apaltasuna transmititzen du, hain da erraz ahaztekoa... Justu horrexegatik, hartaz gogoratzeko promesa egiten nion neure buruari, ikusten nuen bakoitzean. Gau hartan neure buruari egindako promesa bete nuen: eskultura hartaz gogoratu nintzen. Beste abantaila handi bat ere bazuen, jakina, funtsezkoa azken batean: hura zen neuk bakarrik eta hain bat-batean arazorik gabe puska nezakeen eskultura bakanetako bat”.

Arazorik gabe itzuli zen etxera, pozik, ordura arte eskultura bat izandako txatarra pilatxo hura hantxe nolanahi utzita. “Ez nuen artista izan beharrik eta, gainera, beharrik gabe, artista sentitzen nintzen”.

Biharamunean berehala zabaldu zen hedabideetan Ricardo Ugarteren *Iru* eskulturaren txikizio anonimoaren albistea. Sandrak gustura entzun zituen, irratian eta telebistan, artista, kultur eragile eta politikari

asaldatuen sumindurazko hitzak. Baina albistegien zurrunbilo etengabeak aurki irentsi zuen gertakari xume haren oihartzuna.

Aitaren baratzera itzuli zen egunaren aurretik ere, Sandrak galdua zuen eskulturarekiko gaztetan izan zuen “atxikimendu ia-ia erlijiosoa”, eta barne-premiarik eta pasiorik gabe egiten zuen lana, ofizioz. “Jorge Oteizak eskultura utzi zuenean zegoen puntu berean nengoen ni”, dio grabazioan, irriz, “baina ez nuen eskultura utzi nahi, arrazoi sinple eta prosaiko batengatik: banekien ezin izango nuela behar nuen dirua irabazteko lanbide atseginagorik aurkitu”.

Aitaren baratzeari egindako bisitaren ondoren, ordea, ezinezkoa egin zitzaion “gezur harekin” jarraitzea. “Urteek aurrera egin ahala pixkanaka galtzen joandako pasioaren indarra berreskuratu nuen bat-batean. Neure barruko sentimenduekin bat etorriko zen zerbait txundigarria egiteko gogoa sentitu nuen, neu ere dardaraka jarriko ninduen zerbait, hastapeneko eskulturek jartzen ninduten bezala. Neure buruaren aurka altxatu beharra nuen, gaztetan aitaren aurka altxatu beharra izan nuen bezala”.

Hor du hasiera Sandra Lopezen ibilbide eskultorikoaren bigarren aroak. Eskultura berriak egin beharrean, aurretik egindako eskulturak puskatzen hasi zen. Hori zuen artea egiteko eta artista sentitzeko modua. Arteak gaur egun, eta nahiko aspalditik gainera, bereganatua duen kontzepzio zabaltasunaren barruan, nekez uka dakieke arte izaera edo arte estatusa Sandraren ibilbideko bigarren aro horretako *lanei*.

"Eskultura publiko gehienen gai nagusia ahanztura da", azaldu zidan Sandrak. "Ideia hori ekartzen didate behintzat niri gogora, egilearen asmo eta ahaleginen gainetik, inaugurazio ekitaldietako adierazpen arranditsuak gorabehera. Nork begiratzen ditu? Nor oroitzen da hor daudela? Ba al da eskultura publiko bat baino gauza bakarti eta tristeagorik? Salbuespenak badira, jakina, baina salbuespenek turismoa dute gai nagusi, niri burura dakarkidaten ideia aintzat hartuz gero. Esan beharrik ere ez dago Eduardo Txillidaren *Haizearen orrazia* dela inguruan dugun adibiderik argiena". Horrela begiratuz gero: eskultura publikoak berriro ere arte izan daitezen, zer hobe, zer eraginkorrago, haien aurkako atentatuak baino?

"Ez du uste kalte handirik egin dakiokeenik gaur egun eskultura publiko bati eraso fisiko batekin", eran-

tzun zidan galdetu nionean ea erasotako eskulturei eta haien egileei egindako kalteek ez al zuten arduratzen. “Artearen kontzeptualizazio erabatekoaren garaian bizi gara, eta kontzeptua ondo gordea gera daiteke argazkietan, bideoetan, planoetan, txostenetan. Eta, okerrenean ere, diruz konpontzeko moduko aldaketa da eraso fisiko batekin egin dezakezuna. Adibidez, Ricardo Ugarteren *Iru*, nire estreinako erasoak eraitsi zuen eskultura, guztiz lehengoratuta dago aspalditik”.

Mesedea aise nagusitzen zaio kalteari, Sandraren ikuspegitik begiratuta: “Eskultura publiko bati erasotzean, eskultura hori aintzat hartzen ari zara lehenik, eta bizitza berria ematen gero, alderdi performatiboa jorratuz, historia gehituz, esanahia aberastuz”.

Jorge Oteizaren obra baten kasua zuen adibide argigarritzat. “Agiñako eskultura suntsitu ziotenean, Oteizak, haserre, eskultura ez lehengoratzeko agindua eman zuen. Ez al zuen bete-betean asmatu? Ez al genioke askoz ere zozoago, askoz ere mintzo motzekoago, iritziko Agiñako eskultura zaharberritu eta konponduari orain miresten dugun harri puska zaurituarekin alderatuz gero? Ez al zen galera handia izango obra horri –konpondu eta lehengoratzearekin batera– eus-

kal herritarrok geure arteko liskarrerako dugun joera saihetsezinaren harrizko isla fisiko ezinago zuzena izateak ematen dion indarra kentzea?”

Ricardo Ugarteren Miramongo eskultura aski apala baldin bazen, haren ondoren obra are apalagoei eraso zien. “Ez zitzaidan egokia iruditzen bat-batean, atarikorik eta prestakuntzarik gabe, Oteiza edo Txillidaren obra ezagun bati ekitea. Bide bat egin behar nuen haietara iritsi aurretik. Horregatik, obra ezezagun samarrei eraso nien hasieran, bolada luze batean. Ezezagunak, baina gustukoak nituenak, txera nienak. Ez nituen nolanahi aukeratzen, ez pentsa”. Zurezko, harrizko nahiz altzairuzko edo burdinazko eskulturak txikitu zituen, aitzurrarekin batzuetan baina motozerrarekin eta rotaflexarekin ere ez gutxitan, gupidarik gabe beti.

Hautsi beharreko eskulturak hautatzeko beste irizpide garrantzitsu bat erraztasuna zen: erraztasuna eskultura fisikoki puskatzeko, batetik; erraztasuna lana inor ohartu gabe egiteko, bestetik. Horregatik mendian edo leku mortuetan zeuden eskulturei eraso zien

garai hartan, beti bakarrik, beti gauez, beti zuhurtzia handiz.

Donostian edo inguruan ez ezik, Bizkaian, Kantabrian, Araban, Errioxan, Nafarroan eta Lapurdin ere hautsi zituen eskulturak; berak egindako txiki bat ere bai, Manurgan, Arabako herri txiki batean, 15 urte lehenago, lehiaketa bat irabazi eta gero, jarritakoa. Denbora tarte bat uzten zuen, gainera, eraso batetik bestera. Ekintzak espazioan nahiz denboran sakabanatzeak susmoak urruntzen laguntzen zuen. Horri esker, eraso haiek ez zuten oihartzun handirik izan ez prentsan eta ez artearen inguruko gune eta lagunarteetan.

Ordura arteko artegintzak ezagutarazi ez zizkion zirraren lagun egin zuen Sandra bere artista aro berriko zereginak. “Ekintzaile izatea zer den sentitu nuen, eta harrapatu egin ninduen emozioak. Askotan pentsatu dut gure belaunaldiko jende asko ekintzaile izateko gogoak bultzatu duela, sakonean, ETAko kide izatera, ideia politikoak aitzakia hartuta. Nik eskulturarekiko nire jarrera berria izan nuen aitzakia, eta aitortu beharra daukat halako mendekotasun moduko bat sortu zidatela ekintzailearen klandestinitateak eta arriskuak”.

Emozioz kontatu zidan nola ihes egin behar izan zuen, ilunpean, Remigio Mendibururen Jaizkibelgo *Mugarri* eskultura suntsitzen ikusi zuten bi mendizale berantiarrengandik, eta nola pasatu zuen gaua inguruko leize-zulo batean, ia lorik egin gabe, rotaflexa, lan-jantzia, babes-betaurrekoak eta eskularruak labar batetik behera itsasora bota eta gero.

Hiru urte geroago, dozena eta erdi bat eskultura suntsituta ordurako, jauzia emateko prest zegoen. “Oteiza eta Txillidari ekiteko tenorea zen. Ez ziren nire eskultore kutunenak, baina bai eragin handiena izandakoak eta, zalantzarik gabe, ezagunenak. Itsasargi bikainak baina, aldi berean, harlauza are bikainagoak gure belaunaldiko eskultoreentzat. Bideak haiengana ninderaman ia erremediorik gabe. Hautua ez zen nirea. Pertsonaiak nobelagileari bezala gailendu zitzaizkidan niri Oteiza eta Txillidaren eskulturak eta haiei egin beharreko erasoak; interbentzio performatibo deuseztatzaileak edo deseskultura performatiboak, arte kontzeptualaren hizkeran esanda”.

Oteiza geroko utzita, harekin zer egingo zuen pentsatu gabe artean ere, Txillidari ekitea erabaki zuen.

Ez ordea Txillidaren edozein lani, *Haizearen orraziari* baizik, zuzen-zuzenean. Horixe zuen asmoa nik elkarrizketa egin nionean, kontaketa honetan txertatzen ari naizen adierazpenak grabatu nizkionean. “Hau, pentsatuko duzun bezala, ez da eraso bat gehiago izango”, ohartarazi zidan. “Hau beste kontu bat da. Ez bakarrik izango duen oihartzunarengatik. Zailtasunarengatik ere bai: batetik, eskultura apurtzeko zailtasun teknikoarengatik; bestetik, jendea ibil daitekeelako inguruan eta iheserako prest egon behar delako une oro”.

Ordurako argi zegoen ez zidala grabatzen ari nintzena *Berrian* argitaratzeko baimenik emango. Ez *Berrian* eta ez beste inon. Baina beste ezusteko bat eman zidan berehala: “Pentsatu dut zu izan zaitezkeela nire konplizea. Zu izango zarela”.

Elkarrizketa hasi zenetik, pixkanaka, gero eta argiago ageri zena begien bistakoa zen ordurako: Sandra Lopezek nire elkarrizketa eskariari emandako baietza tranpa bat zen, eta ni gozo-gozo nengoen tranpa hartan harrapatua aspalditik. Ez zegoen adierazpenik, ez zegoen elkarrizketarik, ez zegoen kazetariarentzat ezer. Baina ni gustura nengoen han, aspal-

diko gusturen, handik beste inora joateko gogorik gabe.

Grabagailua itzali eta nire ondoan esertzera etorri zen sofara, izterra izterraren kontra.

– Zer iruditzen zaizu nire historia?

– Oso... interesgarria.

– Ba zuretzat da. Baina...

– Zer?

– Zuretzat bakarrik.

– Lasai. Ez dut argitaratuko. Argi dago ezin dela argitaratu.

– Eskertuko dizut.

Eskua izter gainean jarri eta bere aurpegia nirearen ondora gerturatu zuen.

– Gogotik eskertuko dizut, zuk nahiena duzun moduan...

Autopista ondoko Aritzetako eskulturaren barruan esnatu ginen biharamun goizean, irribarrez eta musu gosez. Sandraren adats horail luzearen leuntasuna oroitzen dut, aldamenetik igarotzen ziren autoen zarata, inork inoiz aurkituko ez ninduen leku batean egotearen zirrara.

Kafe bana behar genuen. Eskultura barrutik irten eta restopera joan ginen. Han azaldu zidan bere plana, gure plana bihurtua ordurako: Txillidaren *Haizearen orrazia* osatzen zuten altzairuzko hiru piezetako bati, erdikoari –bizitza arriskuan jarri gabe uki zitekeen bakarrari– adarretako bat, goikoa, rotaflexarekin errotik erauztea.

– Ahal banu, pieza osoa erauzi eta itsasora erortzen utziko niken gustura, baina ezin dinat hain altzairu puska lodia ebaki –azaldu zidan–. Nahikoa lan izango dinat adarrik meharrena mozten. Gauez joango gaitun, eta hik inguruan ezer sumatu orduko abisatu egingo didan. Ados?

Niri une hartan ideia ona iruditu zitzaidan. Artelan bikaina. Maite nuen Sandra, maite nuen arriskua, maite nuen klandestinitatea, maite nituen deseskultura performatiboak.

Gauean *Haizearen orrazia* eta ingurua begiratzen eta aztertzen izan ginen, larrialdirik izanez gero ihes egiteko biderik egokiena zein izan zitekeen ikertzeko batez ere. Inguruko labarrean zegoen zulo bat ikusi genuen, niretzat ezkutaleku egokia izan zitekeena. Erasoa hurrengo asteko asteartearen goizalderako utzi genuen.

E eguna iritsi zenean, goizaldeko hiruretan ekin genion lanari, inguruan inor ez zebilela ziurtatu eta gero. Baina denbora asko behar zen altzairuzko adar hura eskuko rotaflex batekin mozteko, Sandrak kalkulatu zuena baino askoz gehiago. Ez dakit zenbat ordu beharko zuen, baina ez zen erraza izango eguna argitzerako amaitzea.

Ez zuen egiaztatzerik izan. Ordubete inguru zeramanean jo eta su, Ertzaintzaren auto bat inguratu zen guregana, ziztu bizian eta argi urdinak piztuta. Ez nuen Sandrari abisatu beharrik ere izan. Biak jabetu ginen berehala egoeraz.

– Ezkutatu zuloan, agudo! –esan zidan, rotaflexa itsasora bota eta ihesari ekiten zion bitartean.

Autotik irten eta zuzenean jo zuten bi ertzainek Sandrarengana lasterka. Norbaitek salatuak gintuen eta poliziek ondo zekiten zertan ari ziren. Sandra ihesean ikusi zuten, pendizean gora, mendi alderantz, aurreko astean biok ikertua genuen bidexkan. Ilunpean lasterka, ordea, estropezu egin eta harkaitz artera amildu zen kolpe lehor batek eten zuen garrasi zorrotza jaurtiz airera.

Ertzainak Sandra artatzera joan ziren unea baliatu nuen handik ahalik eta modurik diskretuenean leku-

tzeko. Ezin nuen ezer egin Sandrari laguntzeko. Etxera itzuli eta Sandraren berrien zain geratu, horixe zen egin nezakeen onena.

Etxeko irratian entzun nuen, ordu pare bat geroago, Sandra Lopez artista atxilotu zutela, *Haizearen orraziari* rotaflexarekin erasotzen atzeman zutelako. Ertzainengandik ihesi erori eta zauritu egin zela ere esan zuten, baina ez zuela ezer larririk. Sandrak bakarka egindako ekintza gisa aurkeztu zuten. Susmo guztietatik kanpo nengoela zirudien.

Gertakari hark Sandra Lopezen deseskultura performatiboen amaiera ekarri zuen, eta baita gu bion arteko harremanarena ere. Bere artista iraganarekin haustea erabaki zuen, eta ni ere iragan harekin lotuta nengoen.

Kartzela eta erietxe psikiatrikoa saihestea lortu –burua oso argi zuela frogatuz– eta etxe barruko dekorazioaren arloko enpresa batean hasi zen lanean. Eskatu zioten kazetari bakanei ez zien elkarrizketarik eman. Ez zion inoiz inori ezer esan nitaz, nik bere ekintzarik ezagunenean izandako konplizitateaz, eta neuk ere nahiago izan dut orain arte ezer ez esan. Batetik,

neure buruari kalte egiteko beldurrez; bestetik, uste nuelako Sandrak ere nahiago izango zuela nik ezer ez esatea.

Baina beti izan dut argi, halaber, egun batean kontatu egin behar nuela nola gertatu zen *Haizearen orraziari* egin genion erasoa, eta batez ere Sandrak zer esan zidan inoiz argitaratu gabeko elkarrizketa hartan, nola arrazoitu zuen bere arte adierazpide bakan eta guztiz pertsonal hura. Besterik ez balitz ere, arteari eta arteari buruzko kazetaritzari izan diodan atxikimenduaren izenean.

Sandrarekin komentatu dut, eta berari berdin zaiola esan dit, urte asko pasatu direla eta kontu horiek guztiak beste bizitza batekoak iruditzen zaizkiola, berea izan ez zen eta berarekin zerikusirik ez duen bizitza batekoak. Iritsi da unea beraz. Hemen duzue nire lekukotasuna, Sandra Lopez eta haren eskultore ibilbidea hobeto ezagutzeko lagungarri izango delakoan.

Sandra Lopezi buruz edozer idazten den guztietan, baita hari buruzko aipamen eta erreseina laburrenetan ere, beti aipatzen da nola atxilotu zuten, zaurituta eta odoletan, *Haizearen orraziari* eraso egiten atzeman zutenean. Baina nik beti pentsatu izan dut Sandra Lopezi buruzko nobela bat idaztekotan aita zena-

ren baratzera itzuli zen arratsaldea kontatuz hastea litzatekeela egokiena.

# Ipuinik onena

Amagoiak *Berria* egunkariko erredakziotik ipuin bat eskatuz deitu zidanean hasi zen dena. 3.500 karaktere ingurukoa behar zuen, ilustrazio handi batekin batera egunkariko orrialde bat osatzeko.

Baiezkoa eman nion, asko pentsatu gabe. Baietz uste banuen ere, ez neukan neurri horretakorik azken urteetan idatzi eta inon argitaratu gabekoen artean.

Endredo bat zen enkargu hura, idazten ari nintzen nobelatik ateraraziko ninduelako, baina ilusioa ere sentiarazi zidan azkenaldian nahiko nekatua nindukan lan hura utzi eta burua fresko-fresko ipuin bat idazten jartzeak.

Zertaz idatzi eta zer kontatu pentsatzen hasitakoan, beste askotan bezala, ezinean aritu nintzen.

Julio Llamazaresen kontakizun bat etortzen zitzaidan behin eta berriro gogora. Idazle batek egunkari batetik ipuin bat idazteko enkargua jaso ondoren –kasu hartan 30.000 karakterekoa oker ez banaiz– dituen zailtasun eta buruhausteen berri ematen du ipuin horretako kontalariak.

Llamazaresen hura irakurri ez banu seguru asko ideia bera bururatuko zitzaidala pentsatu nuen, eta arazorik gabe balia nezakeela ideia hura, nahiz eta beste idazle batek aurretik erabilia izan, azken batean ez zelako inor konturatuko, edo irakurleren bat konturatuta ere niri ez zidalako ezer esango.

Hortik abiatuta sortu zitzaidan, zeharka, *Ipuinik onena* idazteko ideia; Julio Llamazaresen ipuinari "beste buelta bat emanda", esan ohi den bezala; edo, nahiago bada, Julio Llamazaresen ipuina "koxka bat estututa". Bat-batean idatzi nuen testu osoa, eta zuzenketak egiteko ere ez nuen denbora asko behar izan.

Ipuina *Berria*ko erredakziora bidali eta, hura ahaztuta, berriro nobelaren uztarripean jarri nuen neure burua.

Baina Amagoiak ipuina jaso orduko deitu zidan telefonoz, zorionak emanez, esanez harrigarria iruditzen zitzaiola ipuina, inoiz irakurri zuen onena, eta ohore handia izango zela *Berria*rentzat haren jatorrizko argitalpena gauzatzea. Deiak ezustean harrapatu eta poztu egin baninduen ere, ez nion aparteko garrantzirik eman. Irakurle baten iritzia baino ez zen hura, adiskide nuen irakurle batena gainera.

Baina ipuina egunkarian argitaratu eta gero berehalakoa eta zinez harrigarria izan zen zorion mezuen eta laudorio neurrigabeen zaparrada.

Ordura arte nire obra antologia guztietatik kanpo egon bazen ere, gaztelaniazko itzulpena egin eta euskal narratibako antologia batean sartzeko eskaintza egin zidaten laster Madrilgo argitaletxe batetik. Dena den, itzulpen hura argitaratu aurretik Internet bidez hasi zen ipuina euskaraz ez ezik gero eta itzulpen gehiagotan ere zabaltzen, modu biralean, mundu osoan, marka guztiak hautsiz.

Iritzien arloari dagokionez, kritikari askok diote inoiz irakurri duten ipuinik onena dela; beste askok, literaturan halako izendapenik ezin dela egin badiote ere, bikaina dela aitortzen dute. Metodo kritiko zientifikoekin egindako azterketa literario analitikoek datu harrigarriak ematen dituzte ipuinak bere laburrean batzen dituen goi mailako erreferentzia literarioen, iradokizun distiratsuen eta irakurketa geruzen kopuruei dagokienez. Harrigarria da halaber, gisa horretako azterketen arabera betiere, soberakinen urritasuna.

Datu zehatzei erreparatuz gero, berriz, literatura unibertsalaren historiako inoizko ipuinik itzuli eta za-

balduena da dagoeneko, eta ez dute etenik itzulpen eta argitalpen berriek, hala paperezko nola sareko.

Niri hartaz eta haren balioaz galdetzen didatenean, ordea, ez dut asmatzen zer esan, eta betiko topikora jotzen dut: “Niretzat ipuinik onena idatzi dudan azkena da beti, edo bestela oraintxe idazten ari naizena eta oraindik ere amaitu gabe daukadana”.

# Ohol gaztelua

Bernardo Atxagak *ohol gaztelu* deitzen die, pare bat liburutan, zerrategietan zuhaitzetatik erauzitako egurrezko oholak lehortzeko metatuta osatzen diren multzo edo eraikinei. Ez zait arrotza egiten hitza, neuk inoiz erabili ez dudan arren. Guk *kastillo* deitzen genien halakoei, eta uste izatekoa da Atxagak ere, ahozko hizkeran, izen horrekin ezagutu zituela, eta izen horretatik abiatuta sortu zuela gero, idatzirako, *ohol gaztelu* hitza.

Gaur egun, aspalditik, gaztelu horietako oholak *pakete* txikietan batzen dira, orga altxatzaileak erabiliz –*fenuitxak* deituak, Fenwick markakoak zirelako lehenengoak– aise eta eroso mugitu ahal izateko egurra batetik bestera. Baina ni mutil koskorra nintzen garaian, 1970eko hamarkadan, orga altxatzailerik gabe, eskuz egiten zituzten egurzaleek ohol gazteluak, oholak *pakete*tan banatu gabe, listoi meheez banatutako ilaratan tolestuta.

Atxagak zerrategietako ohol gazteluak aipatzen ditu, baina garai hartan ohol gaztelu asko zerrategie-

tatik kanpo egoten ziren, mendiko auzoetarako errepide estuen bazterretan batik bat. Aire librean zeudenez, aterperik gabe, *laka* deritzen ohol meheekin egindako teilatu bat ezartzen zieten gainean egurzaleek, iltzez jositakoa, bi aldeetarako isuriarekin. Mendikate garaietako herri txikietako etxeek izaten dituztenen antzekoa izaten zen lakaz egindako teilatu hori, eta teilatuaren eta gazteluaren goiko parteko azken oholen artean espazio libre txiki bat geratzen zen, ganbara moduko bat. Horregatik, ohol gaztelu haiek etxeen forma eta itxura izaten zuten; edo baita, hala ikusi nahi izanez gero, gaztelu batena ere, eta horregatik eman zitzaien, dudarik gabe, *ohol gaztelu* izena.

Ni jaio eta hazi nintzen auzoko orube batean, Azkoitiko Urrategi auzorako errepidearen bazter batean, gure etxetik ehun bat metrora, ia-ia beti egoten zen ohol gazteluren bat. Tarteka egurzaleek desegin egiten zuten, oholak kamioietan, hiru ardatzeko eta hamar gurpileko kamioi muturluze indartsuetan ia beti –*jemezeak* deituak, GMC markakoak zirelako–, sartu eta erosleari –altzari fabrika bat kasu askotan, edo beste egurzale edo egur tratulari bat bestela– eramateko, aurretik oholak banan-banan neurtuta beren hiru dimentsiotan: luzera, zabalera eta lodiera, gero *kubi-*

*katzeko*, hots, ohol guztien bolumena kalkulatu eta, horren arabera, saldutako ohol multzo osoaren prezioa erabakitzeko. Gaztelu bateko oholak saldu ondoren, beste gaztelu bat egiten zuten egurzaleek berriz, egur gehiago lehortzeko saldu aurretik.

Ez zait erraza egin hitzez azaltzea nire mutil koskor garaiko ohol gazteluen kontu tekniko horiek, eta pentsatzen dut zuri ere, irakurle, ez zitzaizula erraza gertatuko horietaz jabetzea, baina lan hori nahitaez hartu beharra sentitu dut, ez dudalako inon aurkitu –arestian aipatutako Atxagaren obra pare horretatik landa– arkitektura bereziko eraikin *sui generis* eta iraupen gutxiko horien berri idatzirik, ez etnologiako liburuetan, ez Interneten, ez beste inon. Beharbada legezkoak ere ez ziren, eta horrek ere eragina izan du haien inguruko ahanzturan. Baina nik neure begiekin ikusi ez ezik neure gorputzarekin sentitu ere egin nituen, eta ez dauzkat ahaztuak, ez izango ere bizi naizen artean.

Esan dudan bezala, ohol gaztelu haiek ganbara moduko bat izaten zuten, lakazko edo egur mehezko teilatuaren eta azkeneko ohol ilararen artean. Txoko

txiki eta estua zen, baina abegikorra. Eskuekin eta oinekin oholen muturrei helduta, ganbara moduko hartaraino igotzen ginen auzoko mutil koskorrak, intimitate, aterpe eta, funtsean, jolasleku bila. Mendira joan eta txabola egiten nekatu beharrik gabe izaten genuen han geure txoko propioa, nahi bezala jolasteko, euritik nahiz nagusien begiradetatik babestuta.

Batzuetan egurzaleak etortzen ziren ohol gaztelura, autoan edo kamioian, gaztelu osoa desegitera, gazteluari soilik ohol batzuk kentzera edo, besterik gabe, gaztelua nola zegoen ikustera. Gaztelu gainean geundela egurzaleak zetozela sumatuz gero, “Gizona!, gizona, gizona!” hasiko ginen oihuka eta berehala ekingo genion gaztelutik albait arinen jaitsi eta korrika urruntzeari, inon idatzi gabeko lege batek argi baitzioen debekatua genuela ohol gazteluetara igotzea. Orduko umeak eta mutil eta neska koskorrak ez geunden, ordea, gaurkoak bezain estu babestuak eta zorrotz zainduak, eta neurri handi batean nagusiek, noizean behin debekua gogora ekartzen ziguten arren, nahiko onartua zuten gu ohol gazteluetara igotzen eta ohol gazteluetatik jaisten ibiltzea.

Gaur egun, honezkero igarria duzun moduan, txeraz mintzo naiz ohol gazteluei buruz, baina umetan gorrotagarriak zitzaizkidan, beldurra nielako. Auzoko gainerako mutil koskor guztiak, are ni baino gazte eta txikiagoak ere, aise, zalu eta trebe igotzen ziren haietara, ohol muturrei tinko eta irmo helduta eta behera erortzeko beldurrik gabe, baina ni, motrizitate eskaseko ume beldurtia bainintzen, ohol gaztelu txikienetara baino ezin izaten nintzen igo, eta horietara ere majo sufrituta.

Egurzaleek gure auzoko gazteluko oholak saldu eta gaztelua desegiten zutenean, orube hartan gehiago gaztelurik jar ez zezaten nahi izaten nuen nik; edo, jartzekotan, gaztelu txikia jar zezaten, arriskurik gabe igotzeko modukoa. Baina bai zera! Berandu gabe ziren han berriro, eta gehienetan lau metro baino gehiagoko gazteluak egiten zituzten, niretzat eta nire beldur temosoarentzat gehiegizkoak.

Auzoko ohol gaztelua handia zenean eta gora igotzen ausartzen ez nintzenean, askotan, nik haren ondoan geratu behar izaten nuen, behean, lagunak goian jolasean edo berriketan aritzen ziren bitartean, orduak eta orduak zain, puxtarriekin edo baloiarekin bakarka jolasten, asper-asper eginda. Neskekin jolas-

tea izan zitekeen beste aukera bat, baina orduan halakorik pentsatze hutsa laidogarritzat geneukan auzoko mutilok.

Egoera hartan, asperdura baino okerragoa zen bakardade samin hura, besteak bezalakoa izateko ezintasun gero eta erremediorik gabekoagoaren arantza muinetaraino sartuta sentitzea. Oraindik ere hotzikarak eragiten dizkit ohol gazteluaren goialdetik iristen zitzaizkidan oihuek eta barre algarek ematen zidaten mina gogoratzeak.

Arratsalde batean, auzoko mutil koskorren buru egiten zuenak, Patxik, ohol gaztelura igotzen lagunduko zidala esan zidan.

– Hire atzetik igoko nauk, eta esango diat non jarri eskuak eta oinak, eta noiz eta nola mugitu. Ez beldurrik izan, ni pega-pega egindako izango nauk, eta deskuido batean askatzen baldin bahaiz eutsiko egingo diat, behera ez erortzeko.

Ez nion lasai eman baiezkoa, auzoan izan genituen ohol gaztelurik altuenetako bat baitzen orduan orubean geneukana, bost bat metrokoa bai gutxienez, baina ausartu eta gorako bideari ekin nion azkenean,

Patxi ondo-ondoan laguntzen eta gainerako lagunak, aurretik igota, adorea emateko goitik oihuka nituela. Kostata eta izerdi-patsetan, baina gora iritsi nintzen, une larri pare bat pasatu eta gero.

Pozak ez zidan asko iraun, ordea, ni gora iritsi orduko Patxik eta gainerako lagun guztiek beherako bideari ekin baitzioten arrapaladan, barre urdurien artean. Aldameneko auzora zihoazela ohartarazi zidan Patxik, futbol partida bat jokatzera.

– Gurekin jokatu nahi baduk, heure kasa jaitsi beharko duk hortik. Hire on beharrez duk. Horrela, beste erremediorik gabe, kastillotik jaisten eta kastillora igotzen ikasiko duk behingoz, baduk garaia eta.

Ohol gaztelutik jaisten hasteko nire saioak antzu gertatu ziren, ordea, hasten nintzen bakoitzean urduritasunak eta beldurrak paralizatu egiten nindutelako. Oihuka hasi eta laguntza eska nezakeen, baina lotsatiegia nintzen horretarako. Etsi eta negar egiteko baino ez nintzen gauza izan egoera penagarri hartan.

Aita zena etorri zen, afaltzeko ordua ondo pasata ordurako, ni ohol gaztelutik erreskatatzera. Ohol gaztelura igo eta handik jaisten lagundu zidan, lauzpabost ordu lehenago Patxik igotzen lagundu zidan be-

zala, niri pega-pega eginda eta nire mugimenduak gidatzen une oro.

Zer eta nola mugitu behar nuen adierazteko oharrez landa, aitak ez zidan ezer ere esan; ez zer gertatu zitzaidan galdetu, ez errietarik egin, ez errukirik adierazi, ez lagunen portaera gaitzetsi...

Gure artean ohikoak ziren era horretako txantxa gaiztoak; giroaren parte. Aldez aurretik ezarritako hierarkia sendotzeko baliatzen zituzten agintearen goiko muturrean zeudenek, eta besteok otzan onartu behar izaten genituen, taldeko kide izaten jarraituko bagenuen. Horregatik, biharamunean ezer gertatu ez balitz bezala jolastu nintzen auzoko lagunekin. Aitak eta amak ez zioten ezer esan Patxiri, nik dakidala behintzat, ezta haren gurasoei ere.

Baina niri arrasto sakona utzi zidan egun hark. Zinemaren munduan sartzen hasi nintzenean, artean hogei urte ere egin gabe, banekien egunen batean istorio hori nola edo hala azaleratzen saiatuko nintzela; eta, ahal izanez gero, neuk zuzendutako film batean.

Zinemaren munduan pixkanaka ibilbide arrakastatsua egin eta gero –batez ere film laburrekin sariak ira-

bazita– neure filma zuzentzeko aukera iritsi zitzaidanean, ordea, jabetu nintzen gidoirik ez neukala. Ordura arte uste izan nuen gertakari hartatik abiatuta eta ohol gazteluaren irudiaren indarrarekin filma ia-ia berez aterako zitzaidala. Ikusleari ohol gaztelua erakutsi eta ikuslea gazteluan sarraraziko nuen, eta ohol gazteluan neure txikitako mundu hura biziaraziko nion berriro, berea ere balitz bezala. Hori argi neukan. Baina horretarako gidoi bat beharko nuen, eta gidoia idazten hasi baino lehen zalantzek gaina hartu zidaten.

Nire lehenengo bulkada kontakizun autobiografikoa egitea zen, baina berehala jabetu nintzen ez zela nahikoa izango nire kasua kontatzea ikuslearen interesari eusteko. Beste ideia batzuk ere izan nituen bueltaka buruan: gau batean, Edgar Allan Poeren *Amontillado upela* berrirakurrita, pentsatu nuen fikzioan Patxi, dagoeneko gizon heldu eta errespetagarri bihurtuta, gezur batekin engainatu, ohol gaztelura eraman eta han hil nezakeela, bururatzen zitzaidan modurik lazgarrienean, mendeku ankerrean; genero-indarkeriaren gaiak gaur egun gizartean duen oihartzunari erreparatuta, pentsatu nuen protagonista ohol gazteluan sexu-abusuak jasandako neska koskor bat izan zi-

tekeela; fikzioari ihes egin eta garai hartako egurzaleak elkarrizketatuz eta bide bazterretako ohol gazteluen argazkiak bilatuz dokumental bat egiteko aukera ere aztertu nuen. Baina ez ninduen aukera horietako bakar batek ere asebetetzen.

Horretarako baliabideak bagenituenez, artean gidoia idazten hasi ere egin gabe nuela ekin genien ekoizleak eta biok filmerako beharko zen ohol gazteluа eraikiarazteko lanei. Mutil koskorretako ohol gazteluak izaten ziren orubean ezinezkoa izan zitzaigun, han aparkaleku bat zegoelako, baina handik gertuko beste orube batean eraikiarazi genuen, Azkoitiko Urrategi auzorako errepidearen beste bazter batean, nik mutil koskorretan ezagututako egurzaleen oinordekoei enkargatuta. Berehala ulertu zuten zer nahi genuen, eta ohol gaztelu bikaina egin zuten, neuk buruan neukana bezalakoxea, haritz amerikarreko ohol ederrak banan-banan tolestuta.

Gazteluaren eraikuntza 1970eko hamarkadako erara egin zen, eraikuntza lanak filmatu nahi nituelako, badaezpada ere, nahiz eta, gidoia idatzi gabe zegoenez, ez jakin irudi haiek beharko nituen, eta, behar

izatekotan, zertarako. Hiru ardatzeko GMC kamioi bat lortu genuen, Gipuzkoa osoan ibiltzeko moduan geratzen zen bakarra, eta langileei orduko janzkera erabiltzeko eskatu genien: mahoizko galtzak, mahukarik gabeko barruko elastiko txuri edo grisa eta, zerrautsetatik babesteko, lau korapilorekin lotutako zapi koadroduna buru gainean.

Langileen adiskide egin nintzen egun haietan, eta une batzuetan lagundu ere egin nien, alkandora erantzita, oholak kamioitik deskargatzen eta gazteluan tolesten. Plazer handia izan zen niretzat gaztelu hura nola eraiki zuten ikustea. Jainko txiki baten pare sentitu nintzen, bere haurtzarora itzultzeko boterea zuen izaki indartsu eta miresgarria.

Une gorena, hala ere, ohol gaztelua bukatu ondorengo egunean iritsi zen. Neu bakarrik joan nintzen haren oinetara, autoan eramandako eskailera bat ezarri nion ondoan, eta hartan gora egin nuen teilatupeko ganbara gisako tarte txiki eta abegikorreraino. Aita zenaz oroituta, indartsu eta zoriontsu sentitu nintzen eskailera haietan gora, bide luze baten amaierara iritsi banintz bezala, barrua hustuta eta bakean.

Etxerik gabeko bi lagun nire ohol gaztelua lotarako erabiltzen hasi ziren egun batzuk geroago. Bizpahiru gau eman zituzten han, baina laugarrengoan, inguruko baserritar batzuek ohartarazita, udaltzainek eragotzi zieten berriro igotzea. Ez udaltzainek eta ez beste inork ez zidan horretaz ezer esan, eta ez nuen ezer jakin. Pare bat asteren buruan, beste eskale batek hartu zuen etxetzat ohol gaztelua, eta hura handik egoztea nekezagoa egin zitzaien udaltzainei. Aurrekoak baino oldarkorragoa zen eskale hura, eta udaltzainetako bati sudurra hautsi zion ukabilkada batez.

Udaltzainen buruak, ikusirik gaur egun ohol gazteluak, nire haurtzaroko garaian ez bezala, gatazka-iturri deserosoak izan daitezkeela, telefonoz deitu zidan, gertatutakoaren berri emateko eta esateko ohol gaztelu madarikatu hura erabili behar nuenerako erabiltzeko garaia nuela, eta gero lehenbailehen desegiteko, mesedez, ezbehar larriagoren bat gertatu aurretik.

Udaltzainen buruarekin hitz egin orduko jabetu nintzen nire filmaren historia han amaitzen zela, ohol gaztelu hark ez zuela jada zerikusirik nirekin, neuk ere harekin zerikusirik ez nuen bezala, eta ohol gaztelu bat ardatz duen filmik egin behar baldin bazen ez ze-

gokidala niri hura zuzentzea. Egitasmoa bertan behera uztea erabaki nuen.

Ez nuen pena handirik sentitu ohol gazteluko egurra erosi zidaten egurzaleak gaztelua oholez ohol desegiten ikusi nituenean. Zinema gehiago ere ez dut egin harrezkero. Ez dut premiarik sentitu. Ikus-entzunezkoen arloko ekoiztetxe batean egiten dut lan, baina bulegotik ezertarako irten gabe.

# Txoriaren hegaldiaren atzean

Bartzelonatik itzuli nintzen egun berean hil zen Mikel Laboa, 2008ko abenduaren 1ean.

Donostiatik gertu geundela, autobusaren txoferrak irratia piztu zuen eta albistegiaren bidez jaso genuen berria bidaiariok. Zurrumurru apal bat zabaldu zen autobusean.

Bakarrik nentorrenez, ez nuen inorekin ezer komentatu, baina neure barruan autobusean zabaldu zenaren pareko zurrumurru apala sentitu nuen. “Orain are barrurago sartuko zaigu gizon hori”, pentsatu nuen, horrek zer esan nahi zuen ondo jakin gabe. “Orain are geureago izango da, eta gu harenago”.

Ez dut inoiz espantu gutxiagoz jaso horrenbeste maite nuen inoren heriotzaren albistea.

Egun batzuk geroago, igande eguerdiz, Agiñan egin zitzaion omenaldian izan nintzen. Mikel Laboaren

errautsak zabaldu zituzten haren alargunak eta semealabek, Mikel Laboa maite zuen jende ugariz inguratuta.

*“Assentiré de grat”* kantatua zuen, aspaldi, katalanezko poema bat; *“Morire”* oraindik orain, italiar poeta baten arrastoan. Emandako hitza bete zuen kantariak. Errauts zen Mikel Laboa. Errauts zen han ginenon guztion barruko zati handi bana.

Jorge Oteizak egindako eskultura dago Agiñan, beste artista batek diseinatutako ermita txiki baten ondoan. Ez dakit zergatik –eta ez zait axola–, baina sinbolismo handiko lekua da; are sinbolismo handiagokoa, jakina, egun hartaz geroztik.

Ezin nintzen leku hartatik eta une hartatik irten, leku hartara eta egun hartara iritsi nintzen bezala.

Ekitaldia amaitu zenean, ez nuen jende guztiarekin batera itzuli nahi izan errepide ertzera, autoa aparkatuta utzi nuen lekura. Ezertarako presarik ez nuenez, justu bestaldera jo eta Domikoko aintziraraino iritsi nintzen paseoan, Mikel Laboaz pentsatzen.

Pentsatu nuen Mikel Laboa beti egon zela presente nire bizitzan, txikitatik eta etengabe, bere bi dimentsio ezagunetan: kantaria eta pertsona.

Pentsatu nuen Mikel Laboaren kantuak gustuko baino zerbait gehiago izan ditudala beti, neure nortasunaren parte nahita ere ezin erauziak baitira haietako asko.

Pentsatu nuen pena handia zela Antigua auzoko kale eta tabernetan, eta beste hainbat lekutan, mila bider ikusitako gizon samur harekin inoiz ere hitz egin ez izana.

Gero neure buruari esan nion: “Hitz egin Mikel Laboarekin? Baina, zer esateko?” Eta ez nuen asmatu galdera horri erantzuten.

Egun hartan, arratsez, basoerdi batzuk edan nituen Antiguako tabernetan, neuk bakarrik. “Mikel Laboaren omenez”, esan nion neure buruari.

Matia kaleko taberna batzuetatik pasa ondoren, Munto Berrira igo nintzen. Azken hilabeteetan taberna hura izan omen zuen bisitatuena Mikel Laboak. Aldaka nahiko izorratua zuenez, Matia kaleraino jaitsi beha-

rrean erosoago zitzaion nonbait hara joatea, etxetik pauso bakan batzuetara zuen eta.

Mikel Laboaren oroitzapen gisa, haren esaldi ezagun batzuk zituzten sarrerako paretan zintzilikatutako koadro batean jarrita Munto Berrin: *“riqueza de lujo”*; *“magnífica ostentación”*; *“nada tras la belleza del vuelo del pájaro”*...

Esaldi haiek aitzakiatzat hartuta, eta ordura arte edandako ardoak bultzatuta, tabernariarekin Mikel Laboaz hizketan hasi nintzen.

– Mikel Laboaren omenez nabil tabernaz taberna –esan nion, mingaina lodituta ordurako–. Mila bider ikusi nuen, Matia kalean, Ibaetan, Igeldo inguruetan... Baina inoiz ez nuen hitz egin harekin.

– Eta... pena ematen dizu?

– Ez. Edo bai. Ez dakit. Ez da pena. Nahiz eta harekin inoiz hitzik egin gabea izan, betiko adiskide mina balitz bezala gogoratzen dut. Eta halaxe izaten segitzen duela sentitzen dut oraindik ere.

– Esan eta esan ari naiz egun hauetan, eta egunkarietan ere agertu dira nire hitzak –esan zidan tabernariak, hasperen eginez–: niri ere edozein unetan ate horretatik sartuko dela iruditzen zait.

Tabernako komunean esnatu nintzen gero, ontziaren gainean eserita. Horixe da nire hurrengo oroitzapena. Mozkortuta egon beharrean, bereziki argi eta erne nengoen. Sasoiko.

Komunetik irten nintzenean, argitasun lauso eta abegikor batek bildua zuen taberna, eta bi lagun baino ez ziren gelditzen han, bakoitza barraren alde banatan: tabernaria eta... Mikel Laboa! Nire basoerdiaren ondoan zegoen gainera Mikel Laboa, barra ondoko taburete batean eserita.

– Zu Josetxo zara, ezta? –esan zidan, nire basoerdia oratuz ondoan jarri nintzaionean.

– Ez, ez... Juantxo...

– Bai, hori da... Barkatu. Badakizu, oso despistatua naiz.

– Baina zu... Gaur Agiñan izan naiz eta han... Zu... Esan nahi dut...

– Bai. Ni hilda nago. Hildakoa naiz. Baina ez beldurtu. Hori ez da txarra.

– Ez? –esan nion, zer esaten ari nintzen ere ez nekiela, harrituta eta nahastuta, baina, sakonean, entzun berri nuenak kontsolatu egiten ninduela sentituz.

– *Quando se chega a morto vemos a vida doutra maneira* –errezitatu zuen.

– “Hildakoa izatera heltzean beste modu batez ikusten du batek bizitza” –euskaratu zidan tabernariak, eta gero ohartarazi–: Fernando Pessoak, hil eta gero, Ricardo Reisi esana, Jose Saramagoren nobela batean.

– Hala izango da, bai –erantzun nuen, artean ere urduri, Mikel Laboari begira–. Zuk jakingo duzu ondoen.

– Zu ere jabetuko zara horretaz egun batean. Baina ez izan presarik, e.

Ez nion aparteko ezer esan Mikel Laboari. Nire mirespena agertzen hasi nintzaion, baina berehala jabetu nintzen horrek deseroso sentiarazten zuela. Kantu batzuetako hitzei buruzko komentarioak egin nizkion gero, baita Kataluniako kantagintzaren ingurukoak ere, baina gai arruntagoez hitz egiteko gogoa igarri nion berehala. Ez dut gogoan zertaz aritu ginen; oroitzen dudan bakarra da futbolaz hizketan amaitu genuela, Realaz batez ere.

Ez ginen luzaz egon elkarrekin. Basoerdia bukatu zuenean etxera joan behar zuela esan zidan.

– Hurrengora arte, Josetxo –agurtu ninduen–. Aio, Iñaki –egin zion diosala tabernariari.

# Pepsi bat Sendavivan

Ez da uda txarra izan aurtengoa. Urrutira bidaiatu gabe, diru gutxi gastatuta, normaltasun apal batean, oporraldi ederra pasatu dugu.

Nekeak, buruhausteak eta ahazteko hobeak diren uneak ere ez dira gutxi izan, jakina. Lau eta hamar urte bitarteko hiru seme-alaba ditugula aintzat hartuta, ezin bestela izan.

Baina ez dugu inoiz galdu egoeraren kontrola, eta oroitzapen eder batzuk bildu ditugulakoan nago.

Sendaviva abentura parkera joan ginen egunean, adibidez, bero sapa baten azpian, ez zen erraza izan umeen unean uneko nahiei ahalik eta modurik justu, orekatu eta ekitatiboenean erantzutea, zarrastelkeria eroaren errazkeria etxekaltean jausi gabe.

Amaiak argi ditu ideiak, eta ni ere bat nator harekin. Ondo neurtu behar dugu noiz eta zer ematen diegun seme-alabei. Ez bakarrik aberatsak ez garelako; pedagogia kontua ere bada.

Egun hartan kantinplora gorrotatu zuten Eiderrek eta Mikelek, hura eskaintzen genielako abentura par-

keko edozein txokotan salgai zeuden freskagarriak eskatzen zizkiguten bakoitzean. Ziur gaude, ordea, gure jokabide zuhurrak, sakonean, kantinploraren balioaz jabetzen lagunduko diela.

Arratsa gertu zela, baina eguzkiaren indar zapaltzailea askorik apaldu gabe artean, gure planen arabera lehoia, tigrea eta gisako animaliak ikustera joateko tenorea iritsita, Naiak –txikienak– ez zuen jolaserako ur txorroten labirintutik irten nahi.

– Ez dago arazorik –esan nion orduan Amaiari–. Ni geldituko naiz berarekin. Zuek joan lasai animaliak ikustera.

Amaia, Eider eta Mikel animaliak ikustera joan zirenean, Naiak, niri begiratu ere egin gabe, ur txorrotekin gozatzen jarraitzen zuen bitartean, handik gertu lehentxoago ikusia nuen makinara jo, bi euro sartu eta litro erdiko Pepsi bat eskuratu nuen.

Bizitzaren txapeldun bat izan nintzen, garaipena ospatzen, Pepsi hura edaten nuen bitartean.

# Zientzia fikzioa

– Esna zaude?

– Bai, baina lo egin dut orain dela gutxi arte. Zer ordu da?

– Seiak pasatxo.

– Orain arte aritu zara lanean?

– Bai. Amaitu dut azkenean ipuina. Zuzenketak baino ez zaizkio falta.

– Bejondeizula! Kontatuko didazu?

– Nahi duzu? Benetan?

– Bai. Honezkero ez dut lo gehiago egingo.

– Edo akaso nire kontaketak lagunduko dizu berriro lokartzen.

– Lokartzen banaiz, ez esnatu.

– Ez horixe!

– Hasi, hasi.

– Espaziontzi bateko eskifaiako kideen gorabeherak dira. Sei lagun daude ontzian, espazioan galduta...

– Zientzia fikzioa idatzi duzu?

– Bai. Horrelaxe atera zait.

– Lehen aldia da, ezta?

– Bai, bai... Baina istorioak eskatzen zuela iruditu zait.

– Jakina! Jarraitu, jarraitu...

– Espaziontzian sei lagun badaude ere, hasieran hamabi ziren. Gainerako sei kideek, dagoeneko espaziontzian ez daudenek, zorion eternal betea hautatu zuten, espazioan zehar zebiltzala ezustean aurkitu zuten planeta bateko bizilagunen eskaintza abegikorrari baiezkoa emanda.

– Zorion eternal betea?

– Zorion eternal beteak planeta hartan geldirik eta ezer egin gabe eskatzen zuen, betiko. Kondena bat zen berez. Baina gozoa eta erakargarria, jakina, geldi-tzea erabakitzen zuenak ziurtatua baitzuen une oro zoriontsu izango zela amaierarik gabeko denboran, *ad aeternum*; bakardade erabatekoan eta inolako bizi-pizgarririk gabe, baina zorion betean betiko.

– Hil eta zerura joatearen antzeko zerbait.

– Baina erlijio eta jainko konturik gabe. Berme zientifiko batekin. Umea nintzela ikusi nuen telesail bateko episodio batean antzeko zerbait gertatzen zen, eta buruan iltzatuta geratu zitzaidan. Uste dut nik ikusi nuen telesailean denek ospa egitea erabaki zute-

la, familia eta gure planetako eginbeharrak lehenetsita. Heroiak ziren.

– Baina zure ipuinean seik hantxe gelditzea erabakitzen dute. Zorion eternal betean.

– Erabaki zuten, zehazkiago esateko. Hori gertatu eta gero sartzen baita irakurlea ipuinean.

– Hasieran, beraz, zorion eternal beteari uko egin dioten sei lagun ditugu espaziontzi batean...

– Hori da. Eta beste planeta batean beste eskaintza bat jasotzen dute.

– Espazioak supermerkatu bat dirudi zure ipuinean.

– Bai, bizi-aukeren supermerkatu bat.

– Ez dakit sinesgarria den.

– Ni kontatzen ari naizen moduan ez seguru asko, baina horretarako daude idazlearen ofizioa eta kontaketaren teknikak. Ipuina XXII. mendearen hasieran girotuta dago, eta kontalariak azaltzen du XXI. mendearen amaieran zientzialariek egiaztatu eta frogatu zutela pertsonok fisikoki bizi uste duguna ez dela benetan eta modu fisikoan inon eta inoiz ere gertatzen, pertzepzio hutsa dela, errealitate fisiko sendorik gabea. Pertzepzio huts garela, alegia, ustezko ezerez atzemanezin batean igeri, edo horrelako zerbait.

– Espero dut testuan hobeto azalduko duzula hori. Esango dizut irakurtzen dudanean.

– Esango didazu, bai. Eta akaso aldatuko ditut xehetasun batzuk zuk esandakoari kasu eginez. Badakizu asko eskertzen dudala zure laguntza. Ipuina amaitu dudala esan dizut, baina oraindik ez dago guztiz finkatuta. Badakizu nola izaten den hori.

– Ipuin bakoitza dozena bat aldiz amaitzen duzu gutxienez.

– Eta nobela bakoitza ehun aldiz.

– Baina hau ipuina da, ezta?

– Bai, bai. Eta ez oso luzea. Ez du gehiagorako ematen.

– Espazioko bidaiariek beste eskaintza bat jasotzen dutela esan didazu.

– Bai. Nork bere bizitzan atzera itzultzeko aukera daukate, nahi duten punturaino, handik aurrera bizi izan duten guztia erabat eta betiko ahaztuta eta deuseztatuta. Horren ondorioz, aukera hori egiten duenak berriro biziko duen bizitza ezberdina izango da, zoriak aldaketak ekarriko baititu, eta aldaketek aldaketa gehiago, *ad nauseam*, dena aldatu arte.

– Ea ulertu dudan... Jokatutako futbol partida bat berriro jokatzearen antzeko zerbait.

– Jokatutakoan izan duen emaitza ahaztuta. Baita partidako nekeak, txartelak, lesioak eta abarrak ere.

– Litekeena da emaitza bera izatea, baina ez da segurua.

– Segurua den bakarra da beste partida bat izango dela, ez direla jokaldi berberak ikusiko. Antzekoak bai akaso, baina berberak ez.

– Eta...? Jarraitu, jarraitu...

– Seme-alabarik gabeko hiru espaziontzikideek atzera itzultzea erabakitzen dute, haurtzaroraino edo jaio ziren uneraino, bizitza luzatzeko eta proba egiteko ea zer gertatzen den bigarren bizitza horretan, nahiz eta lehena bertan behera utzi behar izan ordainean. Arriskuak ere hartzen dituzte horrekin, jakina: bigarren bizitzan lehenengo bizitzan izan ez zuten istripu hilgarri bat izatekoa, adibidez; edo dena lehen baino okerrago ateratzeko arriskua. Kontziente dira horretaz, baina zalantzarik txikiena ere egin gabe egiten dute haurtzarora itzultzeko hautua.

– Baina seme-alabak dituzten hirurek ez, horiek ez dute eskaintza onartzen, haurtzarora itzultzeak beren seme-alabak ez izatea izango lukeelako ondoriotzat, beren seme-alabak betiko deuseztatzea... Aurrerago beste seme-alaba batzuk izateko aukera izango luke-

te, baina ez dagoeneko etxean dituztenak, maite dituzten horiek...

– Banekien ez zinela lo geratuko nire kontaketarekin. Benetan esna zaude, e!

– Ez duzu kontatzen jarraitu beharrik. Ondotxo dakit nola amaitzen den ipuina.

– Seguru nago horretaz.

– Espazioko bidaiarietako batek garuneko paralisi larria duen ume bat du, neba-arrebarik gabea; asko sufritu dute, bai berak eta bai bere bikotekideak, neurologoak umearen gaitzaren berri eman zietenetik, haurra jaio eta hilabete gutxiren buruan; mila aldiz pentsatu dute, nork bere aldetik zein bien arteko solasaldietan, nahiago luketela umea hilik jaio balitz, askoz ere zoriontsuagoak izango zirela; eta orain, espazioan jasotako eskaintzari esker, bere bizitza errotik berritzeko aukera dauka zure alter egoak...

– Eta baita bikotekidearena ere. Biena.

– Eskerrik asko.

– Tira... Ez horregatik.

– Baina zalantza askoren ondoren gure protagonistak erabakitzen du bidaian aurrera jarraitzea, Lurrera itzulitakoan etxekoekin biltzeko berriro. Zuzen nago, ezta?

– Ezin du beste amaierarik izan ipuinak. Ez nioke onartuko.

– Badakizu, ordea, debekatua dizudala gure umea sartzea zure ipuin eta eleberrietan. Zeure burua beti sartzen duzu, erremediorik gabe. Ni sartzea ere ez dizut debekatzen, nahiz eta gustuko izan ez. Baina Lur ez. Ezin duzu.

– Lurri eskaini nahi diot ipuin hau. Utzidazu, mesedez. Lehena eta azkena izango da, baina zor diot.

– Zor diozula? Ez daki irakurtzen, ez du inoiz ikasiko, eta ez du inoiz jakingo idazlea zarenik ere.

– Baina nik ipuin bat eskaini nahi diot, ondoen egiten dakidanaren emaitza bat berarentzat izatea nahi dut.

– Zertan izango da berarentzat? Ez da ezertaz jabetuko. Ez dio ezertan lagunduko. Zeuri baino ez dizu lagunduko.

– Irakurriko duzu behintzat? Gero debekatzeko bada ere?

– Ez duzu erremediorik. Esana dizut mila aldiz, baina zurekin alferrik da.

– Geuretzat gordeko dugu ipuina, inon eta inoiz ere argitaratu gabe. Berdin zait. Baina irakurriko duzu, ezta?

– Bai, irakurriko dut.

– Eskertuko dizut.

– Eta ba al dakizu gauza bat? Beharbada duela urte batzuk ipuina mila puskatan txikituko nizuke muturraren aurrean, sumin batean, baina orain, gaur egun...

– Orain, gaur egun... Zer?

– ...

– Zer duzu?

– ...

– Ez egin negarrik, mesedez.

– Uste dut espazioko bidaiari hori...

– Zer, maitea, zer!?

– Uste dut ni ere banaizela espazioko bidaiari hori, eta gustatzen zaidala ipuina.

# Idazlea eta deabrua

Idazten hasi aurretik ibiltzea erabaki nuen atzo arratsaldean, ibiltzeak burua argitu eta idazteko ideia onak ematen dizkidalako ia beti. Ibiltzen hasi eta berehala hasi zitzaizkidan ideia interesgarriak bururatzen, eta pixka batean ibiltzen jarraitzea erabaki nuen, burua argi eta bihotza zabal sentitzen nuelako. Zenbat eta gehiago ibili, orduan eta argiago sentitzen nuen burua, bata bestearen atzetik hutsetik sortuak ziruditen ideia ederren bor-bor etengabearen aterpe, eta aurrera jarraitu nuen, lasai samar hasieran baina gero eta antsia handiagoz, gero eta urduriago, gero eta zoroago, deabru ikusezin eta mutu batek tentatuko banindu bezala, gero eta konbentzituago buruan neuzkan ideietan oinarrituta mundua txundituko zuen obra bat idatziko nuela, baina horrekin ere ezin etsita hala ere, aurrera eta aurrera etenik gabe itsu-itsuan, beti gehiagoren premian, harik eta, zerua hodei beltzez bete eta ilundu ostean, ekaitza lehertu eta galduta nengoela jabetu nintzen arte. Jo batera eta jo bestera, kostata aurkitu nuen etxera itzultzeko bidea, eta hezu-

rretaraino melatuta iritsi naiz egunsentian, gorputz osoa dardara batean nuela eta arima izuaren mende. Larritasunak ahantzarazi egin dizkit atzo ibili bitartean bururatu zitzaizkidan ideiarik gehienak, eta gogoan geratu zaizkidan bakanak kaskarrak eta hutsalak iruditzen zaizkit, beheko suaren aurrean erantzi berri ditudan arropak bezain zarpailak.

# Euskadiko oroitzapenak

Hori baldin bada jakin nahi duzuna, bai, nik ere oihukatu nuen “Gora ETA!”, gogotik oihukatu ere, konbentzimendu osoz, Euskadin bizi izan nintzen aldian.

Adin-nagusitasunera iritsi gabeko punki bat nintzen orduan, Madrildik Gernikara joandakoa asteburu bat pasatzera, herri horren bonbardaketaren 50. urteurrena zela-eta antolatu zen mobida handiak erakarrita, eta gero Euskadin gelditu zena bolada batez. Garai hartan ETAren alde egotea, edo gutxienez ETA burkidetzat hartu eta errespetatzea, giroan zegoen; bai nik ezagutzen eta arnasten nituen giroetan behintzat.

Banekien Madrilen gero eta zabalduagoa zeudela ETAren aurkako jarrerak, gero eta gorroto handiagoa zegoela ETAren aurka, baita ezkertiarren artean ere, baina horrek ETAren aldeko nire jarrerari tinkoago eustera bultzatzen ninduen, artaldetik ihes egindako ardia nintzelako ideia sendotzen zidalako. Hala iruditzen zait behintzat orain, gaur egungo nire ikuspuntutik begiratuta.

Oreretako punki batekin enrollatu nintzen han, Gernikan. Oreretak Rentería du izen ofiziala, euskaraz Errenteria, baina mobidako guztiek Orereta esaten zioten, orduan behintzat. Soloko deitzen zioten Oreretako nire mutikoari. Aldrebes eta ganoragabe samarra zen, baina bihotz onekoa, lagun ona.

Soloko etxe okupatu batean bizi zen, Oreretan, eta txoko bat egin zidan bere ondoan. Horri esker, Euskadin geratu ahal izan nintzen Gernikako kontzertuak eta bestelakoak bukatu eta gero. Morbo handia zuen Euskadiko mobida bertatik bertara ezagutzeak. Leku askotan zegoen orduan, aldez edo moldez, sistemaren aurkako mugimendua, baina Euskadiko saltsak beste batzuek ez zituzten osagaiak zituen garai hartan: gaztetxeak, irrati libreak, punk talde bikainak, askotariko kontzertu eta jaialdiak... Eta, horretaz gainera, edo horren ondoan, gobernuari benetako mina egiten zion borroka armatu bati lotutako mugimendu independentista herritar bat, Espainian guztiz deabrutua.

Soloko lagun eta gidari nuela, Oreretako ezker abertzaleko giroa ezagutu nuen gertu samarretik, punkia izan arren ezker abertzaleko lagun asko baitzituen. Ez

zegoen adostasunik kontu guztietan –eta zenbaiten inguruan liskarrak ere izaten ziren–, baina han, Euskadin, gobernuaren aurkako jarrera zuen jende guztia elkarrekin bat eginda eta nahastuta ibiltzen zen garai hartan.

Solokoren lagunik onena, Imanol, Jarraikoa zen, esker abertzaleko gazte mugimenduko kidea. Kontraste handia zegoen bi adiskideen artean: Soloko sistemaren eta haren adierazpen guztien aurka zegoen, zergatiei eta alternatibei buruz asko hausnartu gabe. Imanolek, aldiz, gertutik eta sakon jarraitzen zuen aktualitate politikoa, eta beti saiatzen zen iritzi arrazoitu bat izaten interesatzen zitzaizkion gai guztiei buruz. Argala miresten zuela esaten zuen, ETAko kide eta gidari historiko bat, erakunde parapolizial batek urte batzuk lehenago hila. Solokok eta beste lagun batzuek askotan esaten zioten, erdi txantxetan eta erdi serio, egun batean Herri Batasuna ezker abertzaleko alderdiaren mahai nazionaleko kide izatera iritsiko zela.

Askotan elkartzen ginen Soloko, Imanol eta hirurok, bai kontzertuetara joateko eta bai lan militanteak egiteko. Solokorekin konfiantza handia zuenez, gure aurrean Imanolek aitortzen zuen, Jarraiko bileretan horretaz ezer ez esan arren, deseroso sentiarazten zute-

la ezker abertzalearekin lotutako adierazpen eta ekimen batzuek. Beste militante askori bezala, Imanoli isileko sufrimendu asko kosta zitzaion, besteak beste, ETAk Yoyes militante ohia hil izana irenstea. Ni Euskadin izan nintzenean, ez zen artean ere urtebete atentatu hura gertatu zenetik, eta hark zabaldutako pitzadura, pixkanaka, handiagoa egiten ari zen.

Hirurok Oreretako kaleetan kartelak itsasten ari ginen batean –ez galdetu zerenak: greba orokor baterako deialdiarenak beharbada, kontzertu punk batenak akaso, edo Leitzarango autobidearen aurkakoak bestela–, kartelei buruzko gogoeta batekin harritu gintuen Imanolek:

– Aurrekoan esan zidan lagun batek gure kartel eta pankartekin herria zatartu egiten dugula, eta kontuan hartu beharko genukeela hori; herritarren aurkako eraso bat izateaz gain, oztopo bat dela gure mezua hedatzeko.

Horiek “pijo pureta baten lerdokeriak” baino ez zirela izan esan zion Solokok Imanoli, pentsatuz hura ados egongo zela, baina Imanol haserretu egin zen.

– Ba ez duk pijo pureta bat hori esan didana, eta niri zer pentsatua eman zidak –agiraka egin zion Solokori–. Herriaren alde gaudela esaten diagu beti, baina

batzuetan ematen dik herria guk nahi duguna besterik ez dela. Eta gehiago esango diat: itxiegia eta ilunegia iruditzen zaidak askotan geure mundutxo hau, interesa izan zezakeen edonor izutzeko moduko ghetto triste eta ospela.

Ez zuen ondorio larririk ekarri une bateko haserrealdi hark, baina gogoan iltzatuta geratu zitzaigun Solokori eta bioi, Imanolengandik ez genuelako horrelakorik espero.

Soloko lagun batzuekin batera morora jaitsi zenean –Marokora joan zenean, alegia, haxixa erretzera eta ekartzera–, Imanolek luze eta zabal eman zidan bere zalantza ideologikoen berri, nik horrelakorik eskatu beharrik gabe. Kanpoko lekuko bat nintzen, atzerrikoa, Madrilgoa, Espainiakoa, eta nire irudipena zen niri azaltzen ari zitzaidana, sakonean, Espainiako gizarte osoari azaldu nahi ziola, bere gertuko zirkuluetatik kanpo ere ulertua izateko premia sentitzen zuelako. Bere burua zuritzeko premia, azken batean.

– Ez da ahaztu behar dena lapurtu zigula Espainiak Francorekin, jende asko gupidarik gabeko indarkeriaz hilda –esan zidan behin–: hizkuntza, kultura,

nortasuna, nahi duguna izateko eskubidea... Eta orain, Franco hil ondoren, miseriazko apur batzuk baino ez zaigula ari itzultzen, gogoz kontra eta mehatxupean horiek ere.

Ezker abertzalearekin denean eta beti ados ez egoteak, ordea, aberria eta herria traizionatzeko beldurra sentiarazten zion.

– Batzuek zeukaten dena eman dute, beste batzuk orain ari dira daukaten dena ematen, sufrimendua handia da etxe askotan, ezin dugu atzera egin.

Gustura entzuten nituen Imanolen hitzaldi zintzo eta biluzi haiek, eta pena ematen zidan hari laguntzeko modurik ez izateak, behin eta berriro ulertzen nuela eta arrazoia zuela esatetik landa. Beste norbait izateko gogoa sentitzen nuen, punki nerabearen nire mozorrotik irteteko gogoa. Baina ez zen mozorroa. Horixe nintzen ni orduan, punki nerabe sinpatiko bat.

Bere kezkak arintzeko mesedegarri izango zitzaiolakoan, nirekin Eskorbutoren kontzertu batera joateko proposamena egin nion, Barakaldora, baina ez zuen nahi izan. Planak tentatu egin zuela iruditu zitzaidan hala ere. Seguru nago Soloko gurekin balitz baiezkoa emango zukeela. Oreretako beste lagun batzuekin joan nintzen azkenean Barakaldora, eta ez zitzaidan

damutu. Inoiz ikusi dudan kontzerturik zirraragarriena izan zen. Ardi beltzen artean ardi beltz izan ginen kantuan: *“Amnistiaren Aldeko Batzordeak lo zeuden gu nazkaz usteltzen ginen bitartean. Kakatara Euskal Herria, kakatara Euskal Herria, kakatara doa, kakatara doa”*.

Soloko gabeko egun haietan jakin nuen kartelen eta pankarten eragin kaltegarrien inguruko kezka agertu zion laguna Arantxa zela, Arkitektura ikasten hasita zegoen neska bat, nahiko formala janzkeran eta ohituretan, gizarteak markatutako arrastoetan errenditzen zena, baina buruari bueltak emanarazteko nagirik gabekoa, Imanolek hari buruz kontatzen zituenen arabera.

Aste batzuk geroago, Soloko jada berriro gure artera itzulia zela, gu biokin elkartzeari utzi gabe, Imanol Arantxarekin joan zen zinemara pare bat aldiz, erdi ezkutuan. Lotsa ematen zion gure giroetatik hain apartekoa zen neska harekin ikus zezaten, baina begien bistakoa zen istorio hark aurrera egingo zuela, sor zitezkeen traba guztien gainetik, iritsi behar zuen tokiraino iristeko.

Arratsalde batean, Oreretako herriko tabernan geundela, Polizia Nazionalak ETAko kide bat hil zuelako albistea iritsi zitzaigun, errepideko kontrol batean izandako tiroketan, eta ilunabarrean manifestazioa egingo zela hilketa hura salatzeko. Horrelakoetan ez genuen elkarri galdetu beharrik ere: manifestazioan izango ginela ez zegoen dudarik.

Imanolek amorruzko hasperena egin eta birao zakar bat bota zuen. Poliziak ETAko kide bat hil izanak emandako minaren adierazpena izango zela pentsatu genuen hasieran, baina beste zerbaitek ere amorrarazirik zuen.

– Donostiara zinemara joatekoa nintzen, Arantxarekin –esan zigun, burumakur.

Kabina batera joan zen Arantxari telefonoz deitzera, eta luzea izan zen solasaldia. Amaitutakoan, guregana itzuli eta etxera zihoala esan zigun, manifestazioan ikusiko genuela elkar gero.

Manifestazioan ohi baino urduriago sumatu genuen Imanol, eta barrikadak egiten hasi ginenean berehala galdu genuen haren arrastoa. Istiluak bukatu eta gero berriro ere herriko tabernan bildu ginenean, Imanol ez zen agertu. Istiluetan atxilotu egin ote zuten ere pentsatu genuen, baina handik eta hemendik iris-

ten ziren albisteen arabera, Oreretan behintzat, ez zen atxiloturik izan.

Biharamunean aitortu zigun barrikadak egiten hasi ginenean deseroso sentitu zela, urduri, barruak ez ziolako barrikadak egiten uzten, eta etxera joatea erabaki zuela. Lur jota zegoen mutila, eta Solokok eta biok ez genekien zer esan kontsolatzeko.

Egun batzuk geroago eztabaida gogorrak izan zituen Imanolek Jarraiko beste kide batzuekin, eta erakundea uztea erabaki zuen. Horren berri zeharka jakin nuen, Solokok telefonoz kontatuta, ni Eskorbutoren Barakaldoko kontzertuan ezagututako italiar batekin –Giulio zuen izena– enrollatu eta Bilbora joana bainintzen, Solokori min handirik eman gabe, dena esan behar bada. Gero Bartzelonara joan ginen Giulio eta biok, eta harrezkero ez naiz berriz Euskadira itzuli. Ezin dizut, beraz, hortik aurreragokorik kontatu.

Orain hurrengoan, zuk Euskadiko nire oroitzapenen berri jakin nahi zenuela esan zenidanean, Interneten miaketan ibili nintzen, Soloko eta Imanolen arrastoen bila. Solokoren inguruko ezer ez nuen aurkitu, haren izen-abizenik ere ez baitut gogoan. Imanoli buruz,

aldiz, bai, aurkitu nuen, zerbait baino gehiago. Sortu ezker abertzaleko alderdiaren organigraman aurkitu ditut, besteak beste, Imanol Darieta izen-abizenak. Kontu pertsonalagorik ezin izan dut jakin. Argazki bat ikusi dut, ordea, eta gaztetan bezain guapo jarraitzen du. Facebookeko bere lagun egiteko eskaria egitea ere bururatu zait, baina pentsatu dut hobe izango dela bazterrak ez nahastea.

Eta horixe da dena. Horiexek dituzu Euskadiko nire oroitzapenak. Ez dakit ezertarako balioko dizuten.

# Lapurretak

Nire lapurreten historia kontatzea, horixe iruditzen zait une honetan alabaren alde egin dezakedan onena.

Txikitan etxean egingo nituen lapurretatxoak alde batera utziko ditut, ez baitut haien oroitzapen zehatzik gorde. Nerabezarokoekin hasiko naiz.

Disko batzuen lapurreta da gogoan daukadan aurrenekoa, 1981 edo 1982an, neguko larunbat arratsalde batez egina.

Kuadrillan bagenuen era guztietako lapurretetan –bizikletak, motozikletak, diskoak, askotariko pattar botilak...– maiz aritzen ziren pare bat lagun; trebeak, jakintsuak eta ikara gutxikoak zeregin horretan. Baina larunbat hartan Zumarragan zabaldu berria zuten disko denda handi batera sei lagun joatea erabaki genuen; haien artean, eskarmentu gutxiko hiruzpalau geunden, eskarmentudunek arduraz prestatutako estrategia jarraitzeko gertu.

Bakoitzak berean, ondo egin genuen lana denok. Nik zamarra azpian lau disko ezkutatzen asmatu nuen.

Haietako bat Patti Smithen *Horses* mitikoa zen. Hurrengo egunetan, disko hura entzutean, *Free Money* kantura iritsitakoan lapurreta arrakastatsua oroitzen nuen poz handiz: *“Badakit lapurtuak direla, baina ez naiz gaizki sentitzen”*.

Aspaldi galdu nituen binilozko disko guztiak, baina Patti Smithen *Horses* CD formatuan erosita berreskuratua dut.

Urte batzuk aurrerago, 80ko hamarkadaren erdialdean, ordurako neure kabuz dirutxo bat irabazten hasia nintzela, kuadrillako lapur eskarmentudunetako bat eta biok idazmakina elektroniko bat lapurtzera joan ginen Azpeitiko Landeta auzoko industrialdeko tailer bateko bulegoetara. Idazmakina niretzat izango zen, eta lagunari diru kopuru bat ordainduko nion emandako laguntzagatik. Hori zen tratua.

Ordurako idazten hasita nengoen, eta ipuin lehiaketa bat irabazi berria nuen. Urte batzuk lehenago erositako idazmakina klasikoa erabiltzen nuen, baina argi zegoen hura zaharkituta zegoela eta idazmakina elektroniko bat behar nuela, zuzenketak aiseago eta askatasun handiagoz egiteko, zuzenketa bakoitzean Tipp-Ex markako ezabatzailea eskuz aplikatu beharrik izan gabe.

Ilunpean eta presaka, elektronikotik ezer ere ez zuen idazmakina bat hartu genuen ordea. Hondatuta zegoen gainera: izorratuta zeukan *e* letra. Letra horretaz gabeturik, ezin zen ezertarako erabili, Georges Perec idazle frantsesaren *La disparition* nobela *e* bat ere gabe idatziaren kopia bat egiteko ez baldin bazen.

Hurrengo astean berriro bulego haietara itzultzea erabaki genuen konplizeak eta biok, nik hari ordain bikoitza emango niola agindu eta gero. Bigarren aldian idazmakina elektroniko dotorea eskuratu genuen. Horrez gain, ondorengo egunetan lehenengo lapurretako idazmakina ikaskide ohi bati saltzea lortu nuen, neuk ere ez dakit nola. Ez dut sekula jakin zergatik erosi zidan. Idazmakinaz aparteko zerbait nahi izango zuela pentsatzen dut, baina hala izan bazen ez nintzen horretaz ohartu ere egin, zorionez.

Urte batzuetan idazmakina elektroniko hura izan nuen lan tresna, harik eta edozein idazlerentzat ordenagailua izatea derrigorrezkoa bihurtu zen arte. Ez dut gogoan zer egin nuen gero idazmakina elektronikoarekin.

Nire lapurreten historia kontatuz, “ni ere, neure apalean, lapurra izana naun” esan nahiko nioke alabari, ulerbera agertuz, elkartasun keinu gisa. “Harro nagon gainera lapurreta haietaz. Nire bizitzako garai bizienari lotutako une gogoangarriak ditun, gizartean neure lekua aurkitu ezinik traba sentitzen nintzen garaiko gomuta kutunak. Ez ninditenan gaizki sentiarazi orduan eta ez naiten gaizki sentiarazten egun”.

Baina... ez dakit ba. Seguru asko irrigarrikeria ergel gutxiesgarriak baino ez litzaizkioke irudituko alabari nire lapurretatxoak. “Ez gara gauza berari buruz ari”, ohartaraziko lidake, serio eta kopetilun. “Lapurretak eta lapurretak daude, aita”.

Arrazoia eman beharko nioke. Alaba diru publikoa desbideratzen harrapatu izan ez balute, alde ederrean biziko nintzateke, bera eta bere umeak ez ezik, neu ere orain! Inori kalterik egin gabe gainera, ohartzeko modukorik behintzat. Nire binilozko disko zahar haiek eta idazmakina elektroniko aspaldidanik antzu hura, aldiz, berezko jabeei ageriko kaltea eginez eskuratuak, non daude orain?

Nire lapurreten historiak ez duela balioko uste dut. Beste zerbait kontatu beharko diot alabari, kartzelara bisitan joaten natzaionean, nire babesa eta elkartasu-

na erakusteko. Edozer egiten duelarik ere, ororen gainetik eta beti-beti maiteko dudala adierazteko.

# Probetxuzko eskola

– Egun on, ikasle maiteok –agurtu gintuen egun hartan irakasleak–. Gaur zigarroak erretzen irakatsiko dizuet.

Tabakoari buruz mintzatu zitzaigun ordu laurden batez: tabakoaren historia eta bilakaera; tabakoaren erabilera munduko hainbat gizartetan, gureari erreparatuz batik bat; tabakoaren eragina ekonomian, sozializazioan, buruaren oreka-desoreketan, osasunean oro har...

Ondoren, tabako beltzeko paketez betetako kaxa bat atera zuen normalean liburuak ekartzeko erabiltzen zuen poltsatik, eta bakoitzari bana eman zigun.

Banaketa amaituta, arbelaren aurreko oholtzan zutik, zigarro bat piztu zuen, plazera adierazten zuten imintzioak eginez.

Zigarro hura erre bitartean, banan-banan hurreratu zen ikasle guztiongana, eta gutariko bakoitzak bere zigarroa pitz genezan lortu zuen lehenik, eta azken muturreraino erre genezan gero, gure kexu eta eztul temosoei amore eman gabe.

Lehen zigarroa amaitu eta gero, beste bat pitzarazi zigun denoi, eta horrelaxe eduki gintuen, erre eta erre, eztulka etengabe, eskolak iraun zuen ordubetea ahitu zen arte.

– Barkatuko didazue, ikasle maiteok, gaur gogor samarra izan banaiz –desenkusatu zitzaigun amaieran–. Zuzendariak esan dit hau nuela azken eskola zuekin, eta ez nuen alferrik galdu nahi zuei probetxuzko ezer irakatsi gabe.

Ikasgelatik ke laino itxi baten erdian irteten ikusi genuen azkeneko aldiz.

# 1974ko Italiako Giroa

Luis Ocañak, Mentéko mendatean behera jaisten ari zela erori eta min hartuta, 1971ko Frantziako Tourra utzi behar izan zuela jakitean, poztu egin zen Gorka Alkorta Ezkurdia Donostiako gotzaina (Azkoitia, 1963), istripu hari esker Eddy Merckxek ia-ia ziurtasun osoz galdua zuen Tour bat irabazteko aukera berreskuratu zuelako, eta berak, Gorka Alkortak, Eddy Merckxek irabaztea nahi izaten zuelako beti.

Oraindik ere hura miresten jarraitzen du. Jesukristoren, Espiritu Santuaren, Ama Birjinaren, aita santuaren eta gisakoen irudiekin batera, Eddy Merckxen argazki bat du bulegoan *Ziklismozale ospetsuak* saileko aste honetako gure protagonistak, ondo agerian eta aise ikusteko moduan; ez, ordea, edozein argazki, ziklista Paulo VI.a aita santuaren ondoan erakusten duena baizik, Italiako Giroko maglia arrosa jantzita, 1974an.

Ocañaren istripua gertatu zelarik artean ere umea zela dakar gogora gotzainak, ezbehar hark eragin zion poza zuritzeko: “Zortzi urte betetzear nengoen”, argu-

diatu du. Baina agerian utzi du poz haren arrastoak ez direla ezabatu. “Ez zen izango hura inoren ezbeharraz poztu nintzen lehen aldia, baina bai gogoan iltzatuta geratu zaidan lehenengoa; gogoan iltzatuta inoiz ez ahazteko moduan. Oraindik ere, egun hartako argazkiak ikusten ditudanean, Ocaña eroriaren irudi beldurgarriek poz haren oroitzapen lauso bat ekartzen didate, hartu nuen lasaituaren oroitzapen urrun bat”.

Ocañaren eroriko mitikotik hiru urtera, 1974an, Eddy Merckx aita santuaren ondoan erakusten duen bulegoko argazkiaren urte berean, osaba-izebekin eta aita-amekin Arratera joan zen eguna pasatzera Alkorta, osabaren Seat 124 autoan. “Aitak eta amak ez zuten autorik eta gutxitan irteten ginen herritik. Horregatik, aparteko eguna izan zen hura niretzat”. Berriak eta arrotzak iruditu zitzaizkion paraje haiek, eta uste du horregatik dituela oraindik ere gogoan gordeak orduko irudi solte batzuk. Baina benetan ondo gogoan duena da kezka nagusi eta bakarra izan zuela egun osoan buruan bueltaka: Iortuko al zuen Merckxek Giroko maglia arrosari eustea?

“Italiako Giro hartan Jose Manuel Fuentek egun bat baino gehiagoan zuen erakutsia Merckx baino gehiago izan zitekeela batzuetan aldapa gora, aurkari arriskutsua zela”, dakar gogora Alkortak. “Txakalaldi handi baten ondorioz galdu zuen lidertza Fuentek, eta Merckx zen lider Arratera joan ginen egun hartan, baina mendiko etapa arriskutsu bat geratzen zen, egun hartakoa hain zuzen ere. Hura onik pasatuz gero salbu zen Merckx, baina bien bitartean ni, 11 urteko mutil koskorra, Italiatik milaka kilometrotara, beldurrez akabatzen nengoen, ezin jasana iruditzen baitzitzaidan Merckx Fuentek menderatuta maglia arrosa galtzen ikustea”.

Garai hartan ez zegoen jakiterik Italiako Giroko edo Frantziako Tourreko eguneko etapan zer gertatu zen telebistako albistegian esaten zuten arte, “bederatzi eta erdiak baino lehentxeago, zuri-beltzeko irudi urri batzuekin lagunduta”, gotzainaren oroimenak huts egiten ez badu. Une horren zain ematen zuen eguna Azkoitiko mutil koskor hark, batez ere mendiko etapa edo erlojupekoa egokitzen zenean, sailkapen nagusirako erabakigarri gerta zitekeen lehia aurreikusten zenean. Arratera eraman zuten eguna, berezia eta ezberdina izanagatik, ez zen salbuespena izan.

Arratetik bueltan, autoan etxerako bidean, gero eta urduriago zegoen mutikoa, telebistako albistegia entzuteko irrikan eta ikaran.

Eddy Merckxen aldeko jarrera hura zaletasun bat baino gehiago izatera iritsi zen; jaiera, adorazioa. “Merckxek irabaz zezala behar izaten nuen lasai sentitzeko, munduak logika eta zentzua zuela sentitzen eta sinesten jarraitzeko. Merckx baldin bazen onena –eta argi zegoen halaxe zela, ondo frogatua zuen– irabaztea zegokion, eta hala ez gertatzeak dena zalantzan jartzen zuen nire orduko mundu ikuskeran”.

“Ez da heresia bat esatea Merckx urte haietan nire Jaungoikoa izan zela, edo Jaungoikoari nire baitan eman nion irudia”, laburbiltzen du afera Alkortak. “Batzuetan pentsatzen dut Merckxek urte horietan aldez edo moldez huts egin izan balit, Ocaña edo Fuente bezalako etsai deabrutu batek gaina hartu eta umiliatu balu, fedea galduko nukeela; ez bakarrik Merckxi nion fedea, baita akaso Jaungoikoari niona ere”.

Ziklista izateko ametsa ere izan zuen gaztetan. Baina, zaletasun handia ez ezik ezaugarri fisiko egokiak ere izan arren, Alkorta ez zen inoiz ziklista izate-

ra iritsi. Bere gaztetxo garaiko Azkoitian ez zegoen txirrindularitzako gazte talderik, eta probatzeko aukerarik ere ez zuen izan.

Ziklista ez izan arren, Merckx eredu eta ispilutzat du beti Alkortak, lehen apez lanetarako bezala gotzainaren zereginetarako orain. “Nire haurtzaroko eta gaztaroko munduaren zuzentasun nahiaren sinbolo bat ere bada niretzat Eddy Merckx”, dio. “Bi mundu gerra latz eta ankerren ondoren ordena berri eta egonkorra ezarri nahi zuen mundu baten sinboloa. Ocaña eta Fuente bezalako txirrindulari irregular, desorekatu eta burugabeen eraso beroegien aurrean indar fisikoa eta indar mentala bikaintasunez uztartzen asmatu zuen beti, eta haren garaipenak ordenaren, orekaren eta justiziaren garaipena sinbolizatzen zuen”.

Bost Tour eta bost Giro irabazi eta gero, 1975ean, Eddy Merckxek amore eman behar izan zuen, erremediorik gabe, Bernard Theveneten aurrean. “Bere gogorrean ere, eramangarria” izan zen porrot hura Alkortarentzat. “Orduko hartan ez zion eraso orekarik gabeko ziklista burugabe batek, bere antzera egitekoak neurriz eta taxuz egiten zituen batek baizik, ziklista orekatu, diziplinatu eta burutsu batek, txirrindularitzaren ordena urratu gabe. Gainera, nik ordurako 12 urte ni-

tuen, eta prestatuago nengoen, gogorra egin bazitzaidan ere, idoloaren urrezko aroaren amaiera traumarik gabe onartzeko”.

Egungo txirrindularitza jarraitzen badu ere, Eddy Merckxen garaiko txirrindularitzari atxikita geratu zela aitortzen du Alkortak, eta garai hartako txirrindularitzarekin estu lotuta dagoela gizarteari buruz duen ikuspegia.

Ideia horretatik abiatuta, gizartearen funtzionamenduaren inguruko gogoeta ozenetan murgildu da grabagailuaren aurrean. Sutsu mintzo da, konbentzimendua igartzen zaio; eta, ororen gainetik, “ustez ezkerrekoak eta bakezaleak diren diskurtsoetan nagusitzen ari den hipokrisiari mozorroa kentzeko gogoa”.

Horretarako baliagarri iruditzen zaizkio txirrindularitza oro har eta Eddy Merckx bereziki: “Txirrindularitzan –kirolean oro har–, azaletik begiratuz gero, ematen du indarra dela oinarri nagusia, baina pixka bat sakonduz gero edonor jabetzen da adimenaren erabilera egokiaren garrantziaz. Gizartearen funtzionamenduan, aldiz, azaletik begiratuz gero, ematen du adimena dela oinarri nagusia, baina pixka bat sakonduz

gero edonor jabetzen da indarraren erabilera egokiaren garrantziaz”.

Interneten laguntzaz, hemeroteka arakatu dugu Alkortak eta biok, aita-amekin eta osaba-izebekin Arratera joan zen egun hartako etapa zein izan zitekeen jakin nahian, eta ziurtzat jo dezakegu 1974ko ekainaren 8an Misurina di Auronzo eta Bassano del Grappako artean jokatutakoa izan zela.

Alkortak gogoratzen zuen bezala, etapa aldapatsua zen, Dolomitetako etapa nagusia, eta Fuenteren mehatxua zuen kezka nagusi Merckxek lidertzari eusteko, batez ere kontuan hartuta Fuentek bakarkako erakustaldi beldurgarri batekin irabazi zuela bezperako etapa, Tre Cime di Lavaredon amaitutakoa.

Alkortak Arratetik itzuli eta TVEko *Telediario* albistegia ikusiz jakin ahal izan zuenez, Fuentek eraso gogorra jo zuen Grappako mendateko igoera asfaltatu gabean, eta bi minutuko aldea izatera ere iritsi zen, baina une bateko estutasuna baino ez zen izan hura Merckxenzat, mendate gainean Fuenterengandik 33 segundora pasatu baitzen, indartsu. Talde txiki batek harrapatu egin zuen Fuente jaitsieran, eta taldeko es-

printa Merckxek berak irabazi zuen, Bassano del Grappako belodromoan, Francesco Moser gainditu z. Etapa dotore irabaztearekin batera, Merckxek 1974ko Giroaren garaipena ziurtatu zuen egun hartan.

“Justizia nagusitu zen eta Azkoitiko 11 urteko mutikoak gustura eta lasai lo egin zuen gau hartan”, komentatu du, autoironiatik ere baduen irribarrea ezpainetan, Alkortak. “Donostiako gotzain izatera eraman behar zuen fedeak makularik gabe zirauen”.

# Etsaiaren irribarrea

Batetik bestera ibiltzerakoan, oinek zurezko zoruan eragindako karrankak hausten zuen Donostiako Udal Liburutegi zaharreko isiltasuna. Zurezkoak ziren aulkiak, mahaiak eta apalategiak ere, eta ez zen artean ordenagailurik. Nire haurtzaro garaiko eskola gogorarazten zidan leku hark; Francisco Franco Espainia osoko buru zen garaia, mundua denon onurarako ordenatuta zegoela sinetsarazi zidatenekoa. Ez nintzen sarri izaten han, baina lanerako behar nuen dokumentu zaharren baten bila joanik izango nintzen egun hartan.

Biok harritu ginen elkar ikustean, Rodolfo Larrañaga eta ni. Hamar urtetik gora izango ziren elkar azkenekoz ikusi genuenetik, eta non topo egingo eta herritik urruti samar, hiriburuko gune isil hartan. Diosal lehor eta hotz bat baino ez nion egin nik; berak, aldiz, irribarre samur bat eskaini zidan, eta ilusio zantzuak igarri nizkion *La Voz de España* egunkariaren auskalo noizko aletik altxatu zuen begiradan. Ez zen konpromisozko irribarre bortxatu bat, ezta zerbait lortzeko kal-

kuluak eragindakoa ere. Gizon zaharra zen ordurako Rodolfo Larrañaga, laurogei urtera gerturatua; ez zuen nirekiko ez disimulatzeko motiborik, ez irabazi edo galtzeko gudurik.

Ile urdindu eta aski sarriko gizon argal, tente eta dotore hura Francisco Francoren erregimenak Azkoitiko Udalean izandako zutabe sendoenetako bat izana zen. Donostiako Udal Liburutegi zaharrera garai loriatsuak gogoratzera joandako faxista nostalgiko bat zen orain. Etsaiak izanak ginen, eta nik lehengo etsai zaharrak etsaitzat hartzen jarraitzen nuen. Baina beti erakarri izan nau ni bezala pentsatzen ez duten pertsonen arrazoiak entzuteak. Tentazio handiegia zen niretzat Rodolfo Larrañagaren irribarre hura.

Irribarre hark egin zidan abegi onari erantzunez, antzeko egoera batean lagun, adiskide, gogaide edo burkide askorekin egingo ez nukeena egin nuen aspaldiko etsaiarekin: diosalaren ondoren berarekin hizketan hasi. Ahapeka, lekuaren isiltasuna ez urratzearren, zer moduz geunden galdetu eta erantzun genion elkarri, eta liburutegira zertara joanak ginen.

– Garai bateko kontuak benetan ondo gogoratzen ditudan egiaztatzera etorri naun –azaldu zidan–. Urteekin memoriak fidagarritasuna galtzen din.

Artxibo zaharretan egin beharreko bilaketak egin eta gero, Rodolfo Larrañagaren paretik berriro ere diosal eginez pasa eta liburutegitik irteteko asmoa nuen, baina begiratu nionean eskua altxatu eta itxoiteko eskatu zidan. Gero, bere adineko baten kasuan harrigarri gertatzen zen zalutasunez altxatu eta hurreratu egin zitzaidan.

– Presaka ez bahabil, kafe bat hartzera gonbidatuko haut. Nahiko niken hitz egin hirekin tarte batean...

Sentimendu asko nahastu zitzaizkidan barruan une hartan. Beldurra sentitu nuen, iraganeko irain edo erasoren batengatik kargu hartuko ote zidan; horrez gain, ezinegona sentiarazi zidan faxista batekin kafe bat hartuko nuela pentsatzeak, hori lege garrantzitsu bat edo Jaungoikoaren agindu bat urratzearen pareko zerbait balitz bezala. Baina ororen gainetik kitzikatu egin ninduen eskaintzak. Nahita ere ezin nion ezetz esan; eta gainera ez nuen nahi.

Konstituzio plazako taberna batean elkartu eta hizketan hasi ginenean, berehala erakutsi zidan nik uste nuenaren aldean asko zekiela nitaz, aspalditik jarraitzen zituela nire pausoak arretaz.

– Nik beti izan dizuet begirune handia historia ikertzen duzuen liburuzaleoi, eta hi ikerlari eta liburuzale fina haiz. Gustura irakurri dinat Azkoitiko kirol elkarteei buruz idatzi dunan liburua. Baina gai jasoagoak eta gatazkatsuagoak jorratzen irakurri nahi haut.

Ez nuen, ordainean, harentzako moduko lausengurik. Zahar segail eta dotorea iruditzen zitzaidala zen haren alde esan nezakeen bakarra; Samuel Beckett eta J.D. Salinger gogorarazten zizkidala bere itxura fisikoak. Baina hori esatea ez zitzaidan egokia iruditzen, jakina.

Ez zuen politikaz ezer esan, ez zuen iraganeko konturik aipatu, baina luze samar jarraitu zuen hizketan, kulturaren garrantzia nabarmenduz eta gaurko gizartean nagusitzen ari den hutsalkeria gaitzetsiz. Donostian geundenez, kasualitate latza zatekeen biok ezagutuko gintuen azkoitiarren bat fortunatzea parean, baina une oro artega nindukan aukera hark. Askok begiak igurtziko zituzketen, ikusten zutena sinetsi ezinda, une hartan han egokituz gero.

Ez zen burubiderik gabeko jarduna Rodolfo Larrañagarena. Ordu laurden edo hogei minutuko solasaren ondorenerako eskaintza zehatza zuen prestatua: ondo

ordainduko zidan bere oroitzapenak bildu eta bere biografia idazten banuen.

– Nik? –esan nion, harrituta–. Ez al luke hori hobeto egingo zure ideiekin bat datorren norbaitek?

– Zeintzuk dira nire ideiak?

– Franco, Espainia, Jaungoikoa... Zu...

– Bai, ni faxista izan nindunan, faxista naun eta faxista hilko naun. Horixe dun hain zuzen ere esplikatu nahi dudana. Zergatik Franco, zergatik Espainia, zergatik Jaungoikoa, zergatik faxismoa...

– Nazionalsozialismoa ere bai? Hitler ere bai?

– Horiek ere bai. Eta hiri eta hi bezalakoei esplikatu nahi dizuet hori dena, neure ikuspuntutik, barrua zintzotasunez hustuta. Ez liken interesik izango horiek guztiak gazte eskuindar espainolista bati esplikatzeak.

– Zure iragana zuritzeko erabili nahi banauzu, jai daukazu.

– Askatasunez idatzi ahal izango dunala agintzen dinat. Hirea izango dun testua, osorik; hirea azken hitza, denean.

Adarra jotzen ari zitzaidala ere pentsatu nuen une batez, etsai politiko baten aurkako mendeku modu bihurri bat zela topaketa hura, mendekua nola gauzatuko zuen ezin igarri banuen ere. Ez fidatzeko esaten

nion neure buruari. Baina dagoeneko ez nuen nahi zeregin hura beste inori enkarga ziezaion. Nik idatzi nahi nuen eta nik idatzi behar nuen Rodolfo Larrañagaren biografia.

– Egitekotan, euskaraz egingo dut –ohartarazi nion.

– Primeran iruditzen zaidan.

Hunkitu eta limurtu egin ninduen irekitasun hark. Faxista zahar beldurgarri hura, etsai kabroi eta putakume hura oso zen nire antzekoa; nire adiskide, gogaide edo burkide gehienak baino askoz ere antzekoagoa. Ez nion hala ere baiezkorik eman. Ondo pentsatu beharreko kontua zela adierazi nion.

Irri eginarazi zigun tabernatik irtetean gertatu zitzaigunak. Zigarro bana atera genuen geure berokien barruko poltsikoetatik, eta berdinak zirela ohartu ginen. Beltzak eta marka berekoak.

Gero eta ilusio handiagoa egiten zidan Rodolfo Larrañagaren eskaintzak. Beti erakarri izan nau neure burua ez neuk eta ez beste inork espero ez zuen lekuetara eramateak, eta horretarako aukera aparta zen.

Baina ez neuk eta ez beste inork espero ez zuen bestelako leku batean nengoen ni, zoritxarrez kasu hartan, hiru aste geroago: Donostiako erietxean, ezkerreko bularrean agertu zitzaidan tumorea erauzteko ebakuntza egin berri. Zorionez, txikia zen tumorea, eta garaiz atzemana. Larritzeko motiborik ez zela esaten zidaten medikuek; “oraingoz behintzat”.

Ezusteko handia izan zen erietxean Rodolfo Larrañagaren bisita jasotzea. Uste izatekoa zen nire gaitzaren berri izan eta betiko ahaztua izango zuela Donostian egin zidan proposamena, biografiarik nahi izatekotan beste norbaiti enkargatu beharko ziola. Baina ebakuntzaren biharamunean, ostegun goiz batez, atea bi bider jo eta arrosa sorta eder bat eskuetan zuela agertu zitzaidan 232 gelan, beroki beltz luze bat jantzita, zer moduz nengoen galdezka. Ama neukan une hartan ohe ondoan, eta zur eta lur geratu zen, ezkondu egin behar nuela esan banio baino harrituago.

Ez zen asko luzatu bisita. Amaren harrera hotzagatik seguru asko. Nahiz eta bisitagatik eskerrak eman zizkion, lehor eta zakar agertu zen Rodolfo Larrañagarekin.

– Bazekinat orain ez daukanala burua horrelako kontuetarako –esan zidan Rodolfo Larrañagak agurtze-

rakoan–, baina laster irtengo haiz hemendik, indarberrituta. Behar dunan denbora guztia hartu pentsatzeko, baina, nire aldetik, orain hurrengoan egindako eskaintzari eusten zionat.

Amari azaldu egin behar izan nion zein zen proposamen hura, eta muturra okertuz erantzun zidan.

– Nik esandakoa gorabehera, nahi dunana egingo dun azkenean, bazekinat, baina nahiago niken gizon hori berriro ikusiko ez bahu.

– Zergatik?

– Mundu guztiak dakienagatik eta inor gutxik dakizkien beste kontu batzuengatik –erantzun zidan, misterio aire batez.

Ez nuen sekula lortu ama zertaz ari zen argitzea, baina, esan zidan moduagatik –eta esan eta gero isildu zen moduagatik batik bat– beti izan dut tartean gaztetako nola edo halako maite kontuak zeudelako susmoa.

Ez sufritu gabe, ez beldur handia pasatu gabe, baina nahiko ondo sendatu nintzen. Halakoetan gertatu ohi denez, prozesu mingarri hark loturak estutu zizkidan maite nindutenekin eta maite nituenekin; eta bizitzari

indar handiagoz atxikitzeko gogoak piztu. Baina suspertu ahala gero eta gehiagotan oroitzen nintzen Rodolfo Larrañagaz eta haren eskaintzaz, eta gero eta eztabaida gogorragoak nituen kontu haren inguruan.

Denak kontra nituen: adiskideak, neba-arrebak eta batez ere, ororen gainetik eta ororen buru, ama. Faxista baten biografia idaztea faxistari ez ezik faxismoari ere mesede egitea zela esaten zidaten behin eta berriz. Nik, ordea, beti gogorarazten nien Rodolfo Larrañagak agindutakoa: esaten zidana entzun eta gero, idazteko askatasun osoa izango nuen, nirea izango zen azken hitza.

Zenbat eta gehiago eztabaidatu gaiari buruz, orduan eta argiago neukan baiezkoa emango niola eskaintzari. Jakin-min handiegia nuen aukera hari muzin egiteko, eta eztabaidek nire jakin-min hura handitu baino ez zuten egiten.

Esaten dute mila aldiz esateak ez duela gezur bat egia bihurtzen; gisa berean, mila aldiz entzuteak ez du, berez, egia bat gezur bihurtzen. Baina, niri, entzuten ditudan bosgarren alditik aurrera gezurrak iruditzen zaizkit egiak oro, gaindituta baleude bezala dagoeneko, eta egiaren beste muturrera jotzeko gogoa pizten zait beti.

Erietxetik irten ondorengo susperraldian, Rodolfo Larrañagari baiezkoa eman eta lanean hasteko prest bezain indartsu ez egonagatik, obsesio bihurtu zitzaidan ordura arteko nire egia nagusi beti ezkertiar eta elkartasunzaleen ustezko antipoden ezagutza. Gero egin beharko nuen lanerako prestatzeko aitzakian, faxismoaren eta nazismoaren inguruan harrapatu nuen guztia irakurri nuen. Irrika zoroz irentsi nituen aldez edo moldez faxismoa eta nazismoa aldeztuz idatzitako testuak eta liburuak. Zer pentsatzen zuten jakin nahi nuen. Ulertu egin nahi nituen.

Gorputza minbiziaren ondorioak gainditu eta sendotzen zitzaidan bitartean, burua gertukoengandik jasotako aholku eta oharrei muzin eginez indartzen nuela sentitzen nuen, faxisten eta nazien mundua ezagutuz eta aintzatetsiz. Ez nintzen inoiz neure burua faxista edo nazitzat jotzera iritsi, baina faxismoaren eta nazismoaren lilurak harrapatu ninduen, faxista eta naziekiko enpatia eta are sinpatia sentimendu aski zabal bat sentitzeraino.

Ez denak, baina faxista eta nazi asko –borondate onenarekin eta are altruismoz, izugarrikeria haiek guztiak, azkenean, gizateriaren onerako izango zirela sinetsita–, mundu hobe baten alde modu ordenatu eta

diziplinatuan borrokatu zirela ikasi nahi nuen. Horrelakoen bila egin nituen irakurketa haiek guztiak, eta gogoa ase zidaten kasu interesgarri batzuk aurkitu nituen. Rodolfo Larrañagaren aurpegia jartzen nien denei nire irudimenean.

Zeharo osatu eta indartsu sentitu arte Rodolfo Larrañagari baiezkorik ez emateko asmoa nuen, baina telefonoz deitu zidan berak erietxetik irten nintzenetik bi hilabete pasa baino lehen.

– Ez daukan oraindik hasi beharrik, baina poz handia emango didan lana hartzeko prest hagoela esanez gero.

Poz hori eman eta neu ere pozik eta lanean hasteko gogoz sentitu nintzen telefonozko solasaldi labur haren ondoren.

Ez nuen, ordea, sekula hasterik izan, bihotzekoak jota hil zelako Rodolfo Larrañaga bi aste geroago, laurogei urte bete berritan, bere bizitza kontatuta uzteko asmoa burutu gabe.

Jende askoren harridura eragin nuen Rodolfo Larrañagaren hileta elizkizunetan. Haren oroimenezko gutuna idatzi eta *Maxixatzen* Azkoitiko herri-aldizkari-

ra bidaltzeko asmoa ere izan nuen, baina hasi orduko jabetu nintzen ez neukala zer kontaturik, ez nuela Rodolfo Larrañagaren alde mintzatzeko funtsezko arrazoi bakar bat ere. Donostiako Udal Liburutegi zaharrean ni ikustean loratu zitzaion irribarrea salbu.

# Oinarrizko arau bat

Markos Ostolaza *Urola Kostako Hitza* egunkarirako elkarrizketatu nuenean, ez nion Andremaixetako txupinazoari buruzko istorioari aparteko garrantzirik eman. Uste dut argitaratu nuen testuan ez nuela aipatu ere egin. Urteek aurrera egin ahala, ordea, oroimeneko txoko batean ondo gordeta neukala jabetu nintzen, tarteka-marteka gogora etortzen baitzitzaidan, ezin jakin zergatik, behiala ikusitako filmetako eszena bakan batzuk etortzen diren moduan.

Ez dut inoiz grabatutako elkarrizketak gordetzeko ohiturarik izan, baina Ostolazari egin niona gordea daukat oraindik, kasualitate baten ondorioz. Oraindik orain jabetu naiz horretaz, etxez aldatzea egokitu zaidanean. Horri esker, hitzez hitz transkriba dezaket orain Ostolazak egin zidan kontaketa. Honela du hasiera:

“Zoriontsua behar nuen une hartan: herriko jaiak hasi berri, oporretan, lagun giroan... Horrez gain, eguerdiko ekintza ezin hobeto atera zela ospatzen ari ginen: alkatearen muturren aurrean zabaldua genuen,

orduantxe puntuan, udal agintariek gaztetxearen aurka ezarritako politika errepresiboa salatzen zuen pankarta, hark udaletxeko balkoitik festen hasierako txupinazoa bota baino segundo batzuk lehenago.

”Niri, ordea, lagunarte alai hartatik ihes eginarazi zidan barruko minak. Lagunei ezer esan gabe, bizikleta hartu eta herriaren kanpoaldera jo nuen, errekazulo ospel bateko bakardade ezkuturaino. Film bateko protagonista ematen nuela pentsatu nuen, baina ideiak ez ninduen beste batzuetan bezala kontsolatu”.

Ostolazaren *Oinarrizko arau bat* film estreinatu berria ikusi duzuen irakurleok ez duzue esan beharrik zein eszena dakarren gogora Markos Ostolazaren 1989ko oroitzapen horrek, filmaren hasieran protagonistak, Oskar Leizaolak, oso antzeko moduan egiten baitu ihes lagunartetik.

Hitzez nekez azal dezakedan zirrara eragin zidan niri pantailan irudi haiek ikusteak. Ostolazaren filma ikustera joan nintzenean ez nuen inondik ere espero urteetan lagundu nauen aspaldiko txupinazoko istorioarekin topo egingo nuenik, *Oinarrizko arau bat* ez baita gaztetxeen mugimenduari buruzko filma, borro-

ka armatuari burukoa baizik. Ez dago filmean borroka armatuaren gaitzespen orokor, erabateko edo baldintza gabekorik, haren kalteen zein mugen inguruko gogoeta zalantzaz eta galderaz betea baizik; terrorismora lerratzearen arriskuez zehatzago esateko, hala etikari nola ondorio humanoei erreparatuta.

Baina filmak planteatzen dituen arazoak antzeko gisan zeuden planteatuta dagoeneko, trinko konprimituta, Ostolazak aspaldi kontatu zidan istorioan:

“Azken urteetako borroka kutuna genuen jaien hasierako txupinazoaren orduan udaletxeko balkoiaren aurrean presoen aldeko pankarta ikusaraztearena. Urtetik urtera estrategia aldatzen genuen, udal agintariak ezustean harrapatzeko. Urte hartako gure jukutria zen pankarta udaletxearen alde bietako eraikinak lotuko zituen pita-hari mehe batetik zintzilik jartzea. Baina pankarta eguerdiko txupinazoa baino segundo gutxi batzuk lehenago jarri behar zen, udaltzainek kentzeko astirik izan ez zezaten, eta horretarako ezinbestekoa zen bi eraikinetako batean gutariko batzuk egotea, une egokian pita-haritik tiraka pankarta plazaren erdialdera eramateko.

”Bi eraikin haietako bat kultur etxearena zen. Neuri bururatu zitzaidan, ekintzaren prestaketarako

bilera batean, kultur etxeko giltzak lortzeko modua. Erraza neukan. Gaztetxeko zine-klub taldeko kidea nintzenez, seguru nengoen edozein aitzakiarekin giltzak eskatuz gero Joxe Manuelek, udaleko kultur teknikariak, arazorik gabe utziko zizkidala. Horixe egin nuen txupinazoaren bezperan; kultur etxean 16 milimetroko film batzuk ikusi behar nituela esan nion Joxe Manueli, bobinak ordena egokian zeudela egiaztatzeko, eta arazorik gabe utzi zizkidan giltzak".

Nabarmena da, zalantza guztietatik kanpokoa, gaztetxeko kideen ekintza horren eta Ostolazaren filmean ETAko kideek egiten duten atentatuaren arteko paralelismoa. Baina bereziki harrigarria da nola errepikatzen den bietan gai nagusia: konfiantzazko lagun baten erabilera, hari gezurra esanez helburua lortu ahal izateko. Hona hemen Ostolazaren oroitzapena:

"Kontu ideologiko eta politikoetatik harago, harreman pertsonal ona nuen nik Joxe Manuelekin, atsegin eta eskuzabal jokatu baitzuen beti nirekin, baina zilegitzat jo nuen hark nigan zeukan konfiantza hura engainatzeko erabiltzea; zilegitzat ez ezik baita beharrezkotzat ere. Gaztetxearen alde eta gaztetxearen bi-

tartez gizarte hobe eta justuago baten alde egiten ari ginen borroka kontu personal xixtrin haien gainetik zegoela erabaki nuen. Gainera, nik ez nuen, berez, Joxe Manuel engainatu behar, udaleko kultur teknikaria baizik, udal agintarien ordezkari bat, gaztetxearen eta gure asmo autogestionarioen etsai zuzen bat.

”Sakonean, neure buruari halakorik ez onartu arren, adiskidetasun kontuen kalkuluak ere baziren tartean, jakina: ez zen galera handia Joxe Manuelekin nuen adiskidetasuna urratzea, ordainean gertuko adiskideen estimazioan irabazi behar nuena aintzat hartuz gero. Negozioa biribila zen, politikoki bezala afektiboki”.

Ekintzaren ondoren ikuspegia aldatu egiten da, ordea, bien kasuetan, hala Markos Ostolaza gaztearenean nola filmeko protagonistarenean. Argi ageri da hori Ostolazak eman zidan azalpenean; azalpen horretan, gainera, “oinarrizko arau bat” aipatu zidan, 23 urte geroago egin behar zuen filmaren izenburua aurretik iragarriko balu bezala:

“Kultur etxera igo –bigarren solairuan zegoen, udaletxeko balkoiaren altura bertsuan–, pankarta bez-

peran ezarritako pita-hariari lotu eta txupinazorako segundo bakar batzuk falta zirenean plazaren erdira bideratu genuen, udaletxeko balkoiaren aurrera. Udal agintariek eta udaltzainek ezin izan zuten eragotzi plazan bildutako herritarren aurrean alkatea ezkutatzen zuen pankarta handi hura agertzea. Dena pentsatua genuen bezala gertatu zen, primeran.

”Joxe Manuel berehala igo zen kultur etxera, ziztu bizian, suminaren indarrak bultzatua. Gaztetxeko lauzpabost lagun geunden han, baina niri zuzendu zidan begirasun amorratua. Zerbait esan zidan, ez daukat gogoan zer, baina aurretik nire izena esanda, han beste inor ez balego bezala. Izan ditut poliziak atzetik jarraika, baina haiek ez didate inoiz unean uneko izutik haragoko kezkarik eragin. Joxe Manuelen begietako su hura, aitzitik, ez dut inoiz ahaztuko. Une hartan ulertu nuen ideologia, estrategia eta praktika iraultzaile guztietatik haragoko oinarrizko arau bat hautsi nuela, eta masailak gorritu ez zizkidan lotsa mingarri bat sentitu nuen nire erraiak birrintzen”.

Joxe Manuelen sumina gorabehera, txupinazoko istorioaren ondorioak ez ziren larriak izan; Joxe Manuelek

ez zuen lanpostua galdu, eta horixe zen azken batean gerta zitekeen okerrik handiena. Oskar Leizaolak, ordea, filmean, erailketa baterako darabil adiskide batengandik engainuaren bidez jasotako informazioa. Markos Ostolazaren gaztetako istorioa Oskar Leizaolaren dramaren miniatura txiki bat baino ez da; eta Oskar Leizaolaren dramarena ez ezik definitzen eta mugatzen zaila zaidan zerbait zabalagoarena ere bai, nire ustez.

# Bonbilla errea

Euria zarra-zarra ari zuela, zoroki barrezka aritu gara sei urteko semea eta biok baloiarekin jolasean etxe ondoko parkean. Futitu egin gara ondotik pasa eta, katarro batek edo pneumonia txar batek harrapatu behar gaituela esanez, etxera lehenbailehen joatea hobe genuela ohartarazi diguten atso-agureez. Betebetean pozik sentitu gara biok.

Nahikoa zela iritzi diogunean, mela-mela eginda sartu gara bebarruan eta oinez igo ditugu lehen pisurako eskailerak. Etxeko atea irekitzen ari nintzela, semea jabetu da eskailburuko bonbilletako bat itzalita zegoela. Horrelakoetan neuk hartzen dut bonbilla errea aldatzeko ardura –etxepeko komunitateko lehendakaria bainaiz aurten–, eta semeak gustukoa du niri bonbilla aldaketetan laguntzea.

Elkarrekin dutxatu eta arropa lehorrak jantzi ondoren, etxeko eskailera txikia eta bebarruko trastelekuko giltza hartuta jaitsi gara, trastelekutik bonbilla berri bat hartu eta errearen ordez ezartzeko eragiketa sinplea gauzatzeko asmoz. Eskailburuan oraindik orain

ezarri ditugun plafoi berriekin ez da bihurkinik ere behar.

Trastelekuko atea giltzarekin ireki eta barrura sartu naiz bonbilla bat hartzeko asmoz. Bat-batean atea itxi da nire atzean. Oihu egin diot haserre semeari, demanda eginez, baina ez naiz benetan larritu segundo batzuk pasa diren arte haren erantzunik entzun gabe. Ozenago egin dut oihu orduan, baina are sakonagoa iruditu zait isiltasuna. Ondorengo ahalegin gero eta larri eta zoroagoak antzuak izan dira. Ez nuke asmatuko esaten zehazki noiz galdu dudan itxaropena.

# Autoen isiltasuna

> Bada modernotasunean tragedia bat:
> eskuak gidatu gabe biratzen duen
> bolante eskerga baten antzeko zerbait da.
>
> LOUIS ARAGON

Artegatu egiten nau autoen isiltasunak gauero, hortzak garbitu eta gero, lotaratu aurretik, balkoira irten eta haiei begira geratzen naizenean. Otzan, meneko, kaltegabe dirudite, bakoitza bere lekuan geldirik. Nirea ere hor egoten da, dagokion espazioa zedarritzen duten marren barruan beti. Gauaren erdian motorzale batek ustekabean auto geldiaren ertz bat jo, airean ziztu bizian jaurtikia irten eta kaskezurra mila puskatan hautsiko balu ere, nik errurik ez dudala izan esateko moduan.

Nahiago nuke hortxe geratuko balitz geldirik betiko; are nahiago nire begien bistatik ezkutatuko balute, atzera berriz inoiz ez ikusteko. Autorik gabeko pertsona librea izan nahiko nuke berriro, *carless* bat, gaiari

buruz txiste txarrak egiteko kemena nuenean esaten nuen bezala.

Bada autoen tiraniaren aurka mintzatzen denik, badut autorik gabe bizi den adiskiderik ere; baina ez dut egundo ezagutu autoen aurkako boikot erabatekoa egiten duen inor, bere buruari inoiz ere auto baten barruan sartzea galarazteraino. Batzuetan horixe egin eta horixe aldarrikatu beharko nukeela pentsatzen dut, eta inongo autotan sartzeari uko egiten diogunon mugimendu zibil bat sortu, abiarazi eta sustatu. Izan da historian, nire ustez, hasiera hutsal eta zoroagoko mugimendu arrakastatsurik.

Nik ez nuen berez ezer autoen aurka, nahiz eta autorik ez izan, harik eta 40 urte bete berritan autoa erosi eta txofer egiten ikasi beharra suertatu zitzaidan arte. Lan egiten dudan bulegoa Donostiaren erdialdeko lokal batetik Andoaingo gune industrial batera aldatu zen, enpresa handitu egin zelako; eta ni, Aizarnazabalen bizi naizenez, goizean lantokira garaiz iristeko garraio publikorik gabe geratu nintzen. Bizilekua aldatzerik ere ez nuen, amarekin bizi nintzelako eta ama ez

zegoelako, bere bizitzako ia laurogei urteak Aizarnazabalen eman ondoren, beste inora aldatzeko adinean.

Ez ziren gozoak izan niretzat txofer egiten ikasteko hartutako nekeak, hain gutxi autoa erosteko izandako buruhausteak. Renault Clio txiki bat hautatu nuen azkenean. Hori guztia diruz ondo ordaindu behar izan nuen gainera. Neure buruari harrika egiten ariko banintz bezala sentitu nintzen prozesu ezin deserosoago hartan.

Autoa neure eskuekin gidatzen hasi orduko, ezinegona sentiarazi zidan ordura arte horren arrotza zitzaidan autodunen eta txoferren munduan sartu izanak; mesfidantza isil baina sakon bat. Neure burua traizionatzen ari nintzela sentiarazten zidan aurretik oinez, bizikletan, autobusez edo trenez ibilita ezagututako lekuetatik autoaren handikeria larderiatsua erakutsiz pasatzeak. Autoak traizio horretan sakontzera eta gozatzera bultzatzen ninduelako irudipena nuen, indartsu eta harro sentitzera, bolantea eskuetan nuela inguruan ikusten nuen guztiaren jaun eta jabe.

Gaur egun, oraindik ere, autoan sartu, abian jarri eta batetik bestera hain erraz ibiltzea harrokeria doilorra iruditzen zait. Errudun sentiarazten nau edonorentzat hain arrunta den ekintza horrek.

Gidatzeko baimena jaso eta autoa normaltasunez erabiltzen hasi nintzenetik hilabete ingurura, istripu bat izan nuen. Istripu txikia, aipatzekoa ere ez, noiznahi eta nonahi gertatzen direnekin alderatuz gero.

Ohi baino hogei bat minutu geroago irten nintzen lantokitik arratsean eta etxera lehenbailehen iritsi nahi nuen, ama, berantetsita, kezkatzen hasi baino lehen. Ez dut uste abiada ikaragarrian nindoanik, baina autobidetik irten ondoren autoaren kontrola galdu nuen bat-batean Arroako biribilgunean. Bortizki zabukatu ondoren trafiko seinale bat jo eta autoa biribilgunearen erdian trabeska gelditu zitzaidan, motorra itzalita zuela.

Izuaren mende, motorra pizten saiatu nintzen, autoa leku arriskutsu hartatik ateratzeko, baina urduriegi nengoen. Lau edo bosgarren saioan autoa abian jartzea lortu eta gero, bide bazterrera eraman nuen, han neure burua lasaitzen saiatzeko eta istripuak autoari eragindako kalteei erreparatzeko. Ia ezer ere ez. Atzealdeko eskuineko atea mailatuta zegoen eta ezin zen ireki; gainerakoan, dena ondo.

Amari ez nion ezer kontatu istripuari buruz, eta istripuaren parte ere ez nuen eman. Ezer gertatu ez balitz bezala. Baina autoa konpontzera eraman behar izan nuen. Hurrengo astean joan nintzen tailerrera, eguerdi artea lanetik libre hartuta. Mekanikariak beste bezero bati esan zizkion hitzak dauzkat bereziki gogoan egun hartatik:

– Autoak berak esaten dizu zer daukan eta zer behar duen. Entzuten jakinez gero, autoak hitz egin egiten dizu.

Bi aste geroago, lanetik etxera nentorrela uda hasierako iluntze batean, eguzkiak artean ere ondo berotzen zuela, Alfa Romeo deskapotable gorri batek aurreratu ninduen autobidean, Donostia eta Orio artean. Nire adin bertsua izanagatik oso bestelako itxura zuen gizon batek gidatzen zuen; gure bi autoak bezain ezberdinak ginen biok, askoz itxura *sport* eta gazteagokoa hura, dudarik gabe. Haren ondoko aulkian eserita, gainera, neska gazte ilehori bat zegoen, gona motz batez jantzia, zango luze biluziak gora altxatu eta oinak aurreko taula gainean bermatuta. Iragarki baterako irudia ematen zuen, eta neure buruari esan nion

auto hura iragarki baterako filmatzen ari balira zuzendariak ni ikusi orduko kontratatu egin nahiko ninduela, hain indar bisual handia zuen une batez elkarren parean jarri ziren bi ibilgailuen arteko kontrasteak. Horrelakoxea da, batzuetan, nire barne-umorea.

Aurreratu berri ninduen gizona eredutzat hartu eta haren antzekoa bihurtu nahi izanez gero zer egin beharko nukeen pentsatzen hasi nintzen, fantasiarik eroenei ere bidea libre utziz horretarako. Ez nuke esango inbidia sentitu nuenik. Baina ez dut arazorik aitortzeko auto hura nirearen ondoan pasatu bezala pasatu izana irain baten antzekotzat hartu nuela.

Biharamun goizean, gosaltzen ari nintzela, auto deskapotable haren argazkia erakutsi zidan amak egunkarian, txatar mordo itxuragabea bihurtua. Istripu larria izan zuen Mendaro inguruan, letra handietan irakur zitekeenez, eta ibilgailuan zihoazen bi lagunak hil ziren. Durduzatu egin ninduen albisteak, baina ez nion amari esan auto hura bezperan nire paretik pasatu zela autobidean, istripua izan baino minutu batzuk lehenago.

Ohartu nintzenerako, auto istripuak obsesio bihurtzen hasiak zitzaizkidan, neure borondatearen kontra. Ordura arte ez nuen egunkarian, irratian edo telebistan albisteez arduratzeko ohiturarik, baina istripuen ingurukoak jarraitzen hasi nintzen. Ez nekien zergatik, baina nahita ere ezin nion neure buruari eragotzi.

Istripuen inguruko albisteak, ordea, motz geratzen zitzaizkidan beti. Inoiz ezin baita guztiz esplikatu nola eta zergatik gertatu den istripu bat, are gutxiago norbaiten heriotza eragitera iritsi den istripu larri bat.

Eta maiz gogoratzen nintzen mekanikariari entzundako hitz haietaz:

– Autoak berak esaten dizu zer daukan eta zer behar duen. Entzuten jakinez gero, autoak hitz egin egiten dizu.

Zer esaten ote zuten istripuak izandako eta eragindako auto haiek guztiek? Zer esaten ote zidan niri nire autoak? Ulertzen ote nion ezer?

Horretaz guztiaz amarekin hitz egitea pentsatzen nuen bakoitzean izuak eragozten zidan. Izua, zeri? Ama autoa eta bion arteko borroka isilean sartzeari. Zergatik? Neuk ere ez nekien, eta ez nuen horretan sakondu nahi.

Beste pare bat hilabete inguru geroago, lankide baten emazteak istripu larria izan zuen, Irunen. Koma egoeran sartu zen, eta medikuen aurreikuspenen arabera bizirik irtetea lortzen bazuen ez zen berriro ibiltzeko gauza izango, eta hizketarako ere nekez, garuna kaltetua zuelako kolpearen ondorioz.

Istripua izandako emakume hura hiru bat urte lehenago ezagutu nuen, enpresak ordainduta lankide guztiok egiten dugun bazkarira etorri baitzen, beste lankide batzuen senarrak edo emazteak etortzen diren gisa berean. Elkarren parean egokitu eta hizketan aritu ginen. Masailak gorriarazi zizkidan nire mutilzahar estatusaren inguruko aipamen umoretsu batzuekin, eta gauean, nire ohearen bakardadean, urduritasunez oroitu nuen haren irribarre ironiko zorrotza. Orain auto istripu batek kolpetik ezabatua zuen, beraz, irribarre eder hura, betiko akaso.

– Autoak berak esaten dizu zer daukan eta zer behar duen. Entzuten jakinez gero, autoak hitz egin egiten dizu.

Ezin dut obsesio hau burutik kendu. Batzuetan pentsatzen dut amildegi batetik behera bota beharko nukeela nire autoa, istripu bat izan dudala itxuratuz, eta gero uko egin beste bat erosteari. Baina izutu egiten nau autoak nik zer egin nahi diodan sumatuz gero nola erreakzionatuko lukeen pentsatze hutsak. Eta, gainera, orduan, hori egingo banu, nola azalduko nioke amari ezin naizela bere etxean bizi, kanpoan pasatu behar dudala lan astea, bakarrik, berak Aizarnazabal utzi eta nirekin Donostiara aldatu ezean?

Artegatu egiten nau autoen isiltasunak, nirearenak bereziki, gauero, hortzak garbitu eta gero, lotaratu aurretik, balkoira irten eta haiei begira geratzen naizenean, susmo gaiztoak ditudalako isiltasun horrek esaten duenaz. Baina ohitu beharra daukat nik ere haiekin bizitzen.

# Kamioien bisita

Goiz batean, amets nahasietan endredatuta zegoela, hainbat motor handi eta motelek egindakoa zirudien zaratak esnatu zuen Gartze Sarasa.

Agondu eta gau-mahaiko argiaren etengailua sakatu zuen, baina ez zen piztu. Ohetik jaiki, leihora hurreratu, errezela altxatu eta kanpora begiratu zuen. Egunsentiko zeru gorriaren azpian, bere enpresako kamioi multzo bat ikusi zuen, etxerako errepide estuan mantso eta zaratatsu hurreratzen. Hogeita hamar inguru kamioi ziren, artikulatuak denak. Antzekoak ziren denen traktore-kabinak, baina molde askotakoak atoiak: kutxa lehorrak, kaiola motakoak, edukiontzidunak, hozkailuak, plataformak, iraulkidunak, zisternak... *Sarasa* hitza zuten idatzia, letra ikusgarriz, traktore-kabinen ateetan zein atoietan.

Hiru solairuko txalet zabala zen Gartze Sarasarena, muino baten gailurrean eraikia. Inguratu ahala, kamioiak atariko zelaian zehar sakabanatzen eta etxea inguratzen hasi zirela ikusi zuen Gartze Sarasak leihotik. Eskuko telefonoa hartu zuen eskuetan, baina bere-

hala jabetu zen ez ziela atzamarrek emandako agin-duei men egiten, ez ziola balio kanpoko inorekin min-tzatzeko. Telefono finkoarekin ere proba egin zuen, baina alferrik.

Ohe-atorra erantzi eta bizkor jantzi zituen ohe on-doan prestatuta zeuzkan kalerako arropa dotoreak. Ganbarara jo zuen, erriflea hartzera, eta gero garaje-ra jaitsi zen. 4x4 ibilgailuan sartu eta martxan jarri zuen, eskuineko eskua bolantean zuela, ezkerrekoa leihatilatik aterata zeraman errifleari gora begira eus-ten.

Garajetik irten zenerako, etxe osoa inguratua zuten kamioiek. Haietako batek Gartze Sarasaren au-tora hurreratzeko keinua egin zuen, baina azken unean frenatu eta pasatzen utzi zion. Beste kamioi ba-tzuk ere mehatxatzaile gerturatu zitzaizkion, baina autoa jo aurretik gelditu egin ziren denak. Kamioieta-ko bat besteak baino hurreago ikusi zuenean, Gartze Sarasak airera tiro egin zuen leihotik aterata zeraman erriflearekin. Ondoren, arazorik gabe egin zuen aurre-ra errepide estuan, kamioien ingurutik irten arte.

Atoi iraulkiduna lur beltz eta bigunez beteta zeu-kan kamioi bat Gartze Sarasaren etxeko ate nagusira hurreratu zen. Maniobra batzuk egin ondoren, atzeal-

dea atearen ondoan kokatu, iraulkiarekin atoiko gurdia altxatu eta lur guztia hustu zuen. Iraulkiaren bidez gurdia lehengoratu zuenean, etxetik urruntzen hasi zen, mantso-mantso, gainerako kamioiak atzetik zituela.

# Camping Río Purón

Camping Río Purón. Izena irakurri orduko sentitu nuen haraxe joan behar nuela, ez nuela aurkituko egokiagorik. Interneten irudiak begiratzen hasi nintzen, baina berehala pentsatu nuen hobe nuela aurretik ezer ikusi gabe joan. Erreserba egin eta ordenagailua itzali nuen. Camping Río Purón kanpinean pasako nuen Aste Santuko oporraldia, Asturiasko Llanes udalerrian.

Gaizki nengoen bolada hartan, neure buruarekin ere beldurtuta. Leirek amaitutzat eman berri zuen bion arteko harremana, zazpi urte niretzat behintzat goxoren ondoren, gero eta ilunago sumatzen ninduela argudiatuta, tristura eta beldurra baino ez nizkiola transmititzen, “toxikoa” nintzela. Bakarrik eta babesik gabe utzi ninduen haustura hark, munduaren aurrean ahalketuta. Eta bazen beste zerbait ere horrez gain: nire adin bertsuko aspaldiko adiskide bat, Paul, minbizi baten ondorioz hila zen bizpahiru egun lehenago; urte asko ziren harekin azkenekoz hitz egin nuenetik, baina samin handia sentiarazi zidan albisteak.

Oroimenak behin eta berriz ekartzen zidan burura Paulen aspaldiko irudi bat, seguru asko beste inork gogoratzen ez zuena: Paul lizeoko atletismoko pistan, soinketa orduan, 50 metroko lasterketan, nahiko baldar aurrera egiten, eta helmugako marrara iritsi baino bospasei metro lehenago muturrez aurrera erortzen. Ez zuen min handirik hartu, baina niri, ezin jakin zergatik, buruan iltzatuta geratu zitzaidan istripu txiki eta erridikulu hura.

Kosta egiten zitzaidan mutiko hura orain hila zela onartzea. Eta ni ere modu berean hil nintekeela noiznahi, edo antzeko beste modu batean, edo antzik batere gabekoan, ez zitzaion axola, edo bai, baina noiznahi, inor gehiegi harritu gabe horregatik. Eta noiznahi hil ezta ere, halako batean bai, hilko nintzela, eta orduan ez nintzela ezer izango. Zer ote da ezer ez izatea?

Oporretan etxetik irteteak mesede egingo zidalako esperantza nuen, nire amodiozko penetatik eta existentzialismo ilunetik haragoko zerbait ikusten eta sentitzen lagunduko zidalakoan. Camping Río Purón. Aurrean hondartzak, bertan igerilekua, atzean herri koskor bat eta mendia. Eta han, Camping Río Purónen, aukera guztiak zabalik, egun batzuetan behintzat.

Ez nuen inoren aldartea argira bideratzeko eguraldi aproposik aurkitu Asturias aldean Camping Río Puró-nera joateko eguna iritsi zitzaidanean. Zerua grisetik beltzera bitarteko mila puska loditan zatitua zegoen. Haizeak zakar astintzen zuen euria, tantak larruan mingarri bihurtzeraino. Barrurako ez besterako zego-en.

Zorionez, bungalow bat nuen enkargatua. Ez nuen euripean kanpin denda atontzen mela-mela egin arte zopatu beharrik. Txikia baina abegikorra zen bungalo-wa, zurezko etxola koskor bat. Hantxe geratu nintzen lehen eguneko arratsalde osoan, ohean sartuta, etxean ere egin nitzakeenak egiten: irakurri, musika entzun, telebista ikusi, sabaiari begira pentsamendu txoroetan galdu...

Atariko euriaren zirri-zarrarekin nahasian, haur txi-kiak zituzten familietako kideen soinuak heltzen zi-tzaizkidan aldameneko bungalowetatik. Gurasoek lanak zituzten haurrek aspermenaren ondorioz zituz-ten kasketei aurre egiten. Nire egoera, begiratzen zi-tzaion lekutik begiratzen zitzaiola, askoz ere tristea-goa zen: bakardadeak mineraino jotako gizon abaildu

bat, aski aurrera egina adinean, onenak emanda dagoeneko alderdi askotatik, pentsamendu ilunak are ilunago bihurtzeko egoera ezin egokiagoan. Negar egin ezinda hala ere, sekulako premia eta gogoa sentitu arren, etxean askotan gertatzen zitzaidan bezala.

Ez nuen eguraldi hoberik aurkitu biharamun goizean, ohetik jaiki eta bungaloweko leihotik begiratzean. Gosaldu aurretik paseo txiki bat egin nuen hala ere, aterkia lagun, Camping Río Purón kanpinaren eremu osoan barrena, ingurua ezagutzeko. Igerilekutik gertu nenbilela, kanpineko langile bat ikusi nuen, zira jantzita, garbiketa lanetan. Mutil gazte segail eta indartsu bat zen, ernea eta atsegina.

– Bustialdi bat hartu nahi duzu? –galdetu zidan–. Igerilekua prest dago nahi duenarentzat.

– Ez dut uste gaur inor animatuko denik.

– Baina badaezpada ere garbitu beharra dago. Norbaitek nahiko balu ere...

– Noiz arte izango dugu eguraldi hau?

– Etzi arte bai behintzat, edo etzidamu arte akaso. Hala diote iragarpenek.

– Zer egingo diogu ba!

– Konponbiderik ez duenez, ahalik eta ondoen hartu beharra dago.

Eguraldiarentzat ez ezik nire egoera pertsonalarentzat ere balio zuen mutilak esandakoak. Pentsamendu horri bueltaka egin nuen bungalowerako bidea, baina ez zidan kontsolamendurik ekarri.

Bungalowera berriro sartu nintzenean ezin izan nion eutsi. Lehertu egin nintzen bat-batean, eta zerbait egin beharra sentitu nuen, nola edo halako astinaldi baten premia. Gosaldu gabe eta aterkia bungalowean utzita jo nuen mendira, zirarik ere gabe, udako arropetan, elastiko baten gainetik jertse mehea jantzita, praka bakerotan eta zapatiletan, barruko indar amorruz eta erabakitasunez beteak bultzatuta.

Kanpinaren atzealdeko hesia zeharkatzean zauri txiki bat egin nuen ezkerreko esku ahurrean, jertsea urratzeaz gain. Errepidera irten eta aurrera egin nuen, Purón herrixkaraino. Hara iritsitakoan, gelditu gabe, mendi aldera jo nuen, norabide eta asmo zehatzik gabe, begien aurrean agertzen zitzaidan lehenengo bide, bidezidor, bidexka edo gisakoari helduta, aurre-

ra egitea beste burubiderik gabe baina aurrera egitearen aldeko jarrera horretan tinko beti.

Mendi aldera jo nuen baso sarri batean. Aldapan gora lasterka hasi nintzen. Euriak, izerdiak eta bideko lohiak melatuta, negarra ere lehertu zitzaidan azkenean, eta orroka ere hasi nintzen lasterka egiteari utzi gabe. Tarteka estropezu edo irrist eginda erori arren, altxatu eta aurrera egiten nuen lasterka berriro.

Paul ekartzen zidaten gogora nire erorketa behin eta berriz errepikatu haiek, Paul zenaren erorketa absurdu hura lizeoan, soinketako orduan. “Paul, Paul, non hago, Paul?”, egiten nuen oihu. “Jakin behar diat, Paul. Esan egin behar didak! Zer arraio da heriotza? Jakin egin nahi diat!”. Bele batzuen karrankak baino ez nituen jaso erantzun gisa.

Euriaren barruan sartu nahi nuen irteerarik gabeko leize-zulo batean bezala. Gorputza akitzen sentitu ahala, neure burua hiltzen ari nintzela jabetu nintzen pixkanaka; horretara nintzela irtena bungalowetik, gosaldu gabe, neure buruari modu kontziente batean adierazi ez banion ere. Kontzientzia hartuta, neure burua hiltzen jarraitzea erabaki nuen, aurrera eginez Asturiasko euri gogorraren azpian bide itxi, lokaztu eta ezezagunetan barrena.

Pauso latza da nork bere burua hiltzea. Ez nintzen gauza izan. Ez nuen benetan nahi, edo nahi banuen ez nuen lortu. Halako batean, arnasestuka, ezinean, ezertarako indarrik gabe, euripeko abandonu miseriazko hartan, nola eta zergatik jakin gabe, nekearen nekez seguru asko, barrutik behingoz hustuta, amore eman nuen.

Gorputzez jota baina espirituz arinduta, mamu baten antzera itzuli nintzen, mantso-mantso, Purón herrixkaraino lehenik, Camping Río Purónerainо gero.

Ordu batzuk lehenago igerilekua garbitzen ikusi nuen kanpineko langileak baino ez ninduen ikusi bungalowera itzultzen. Diosal diskretu bat egin eta kanpin barruko bidexka baten ertzetako belarra mozten jarraitu zuen. Nire itxura zikin eta baldarrari erreparatuta, berriketarako gogorik ez nuela sumaturik izango zuen. Lasaitu egiten nau oraindik ere une hura gogora ekartzeak. Beharbada ez zen benetan hala izan, baina une zinez zoriontsutzat dut hura nire oroitzapenetan.

Sukarrak hartuta, izerditan eman nuen gaua, eldarniozko amets errepikakor artean tarteka esnatuz.

Amets haietan gaztetako hainbat lagunek laster egiten genuen, larrituta, etsai ikusezin batengandik ihesi, tarteka eroriz eta berriro lasterrari ekiteko berehala jaikiz. Lagun haien artean zegoen Paul, jakina, eta ametsean nik banekien berak oraindik ez zekiena: erori eta atzean geratuko zen, jazartzen gintuen etsai ikusezinak mendean hartua.

Hurrengo eguna, kanpoan euriak atertu gabe jarraitzen zuen bitartean, osorik eman nuen bungaloweko ohean sartuta, sukarraren mende, noiz lo noiz esna, tarteka eldarnio izerditsuetan, mundutik ostenduta, inon ez banengo bezala. Neure burua hantxe eta halaxe hiltzen uzteko ideia erne zitzaidan, utzikeria hutsez. Sukar hark, hazi eta hazi, barruak kiskaliko zizkidala pentsatzea atsegin iturri izan nuen.

Arratsean, loaldi luze baten ondoren, ia-ia sukarrik gabe eta nahiko suspertuta esnatu nintzen, sendatzetik gertu. Ohean geratu nintzen hala ere, eta hantxe harrapatu ninduen Leireren telefono deiak.

Barkamena eskatu zidan lehenik, ezusteko deiaren molestiarengatik; gero nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan, eta galdetu ea non eta noiz elkar gintez-

keen horretarako. Non eta nola nengoen adierazi nionean, berehala Camping Río Purónerantz abiatuko zela esan zidan, nirekin elkartzera.

– Orain zazpiak dira. Motxila prestatu, autoa hartu eta asko jota gauerdirako hor nago.

– Bai zera! –kontra egin nion–. Ez daukazu honaino etorri beharrik. Sukar pixka bat baino ez daukat. Izerdi pixka bat gehiago bota eta pasako zait. Ez dut zaintzailerik behar. Elkartuko gara aurrerago.

Ez nekien zer esan nahi zidan, zertarako elkartu nahi zuen nirekin, baina hasieratik sumatu nuen Leireri poza eman ziola ni bakarrik eta gaixorik nengoela jakiteak, eta erakargarria egiten zitzaiola nirekin ezohiko egoera hartan elkartzeko aukera.

Neure buruari ukatu nahi izan nion arren, Leire berriro ere nirekin elkartu nahian zebilelako esperantza txiki bat erne zitzaidan barruan. Heldu orduko argitu zidan, ordea, ez zela halakorik.

– Ez dut zure adiskidetasuna galdu nahi, Koldo –azaldu zidan bungaloweko mahaiaren bueltan nik prestatutako entsalada apala jaten hasi ginenean–. Duela bi aste aita hil zitzaigun, bat-batean, bihotzeko-

ak jota. Orain hobeto banago ere, gogorra izan da niretzat. Horren berri eman behar nizula pentsatu dut, baina ez azaletik, gertatu zaidana eta sentitu dudana zurekin aurrez aurre eta patxadaz komentatuz baizik. Horretara etorri naiz. Eta bide batez zure berri jakiteko ere bai, jakina.

Estimatzen nuen Antonio, Leireren aita zena. Mina eman zidan albisteak eta halaxe adierazi nion Leireri. Baina neure buruaz hitz egitean ez nion nire larrimin existentzialaz eta naufragio espiritualaz ezer kontatu. Ahalik eta indartsuen agertzen saiatu nintzen.

– Orain bakarrik nago hemen, baina aitortu behar dizut kanpin honetan badela interesatzen zaidan norbait –esan nion solasaldiaren une batean.

Neure artean irri egin nuen, hori esaterakoan ez zitzaidalako burura inongo neska gazterik etorri, ezta adinean sartutako alargun mardulik ere, mutil gazte segail bat baizik: kanpineko langilea, bezperan goizean igerilekua garbitzen eta arratsean, mendiko nire ibilaldi zorotik bueltan nintzela, kanpin barruko bidexka baten belarra mozten ikusi nuena.

Elkarri besarkatuta egin genuen lo Leirek eta biok. Egunsentian, sexurako bidea berak moztu zuen, nire keinu baldar bati uko diskretu batekin erantzunez.

– Hara! Gaur eguzkia izango dugula ematen du –esan zuen gero, ohetik jaiki, bungaloweko leihoa ireki eta txori txikien kantu alaiei barrura indartsuago sartzen uzten zien bitartean.

“Kamisoi horren azpikoa, hori bai eguzki bete eta ederra, inon eguzki bete eta ederrik bada!”, pentsatu nuen neure artean. Bezperako sukarraren arrastorik gabe, sendatuta nengoen ordurako.

Gosaldu ondoren, igerilekuan eman genuen eguerdi artea Leirek eta biok, tartean bainuak hartuz, bikote zoriontsuen antzera. Leire ez zen ordea nire bikotekidea, bere min barrukoenen berri aurrez aurre eman nahi zidan adiskide bat baizik.

Tarteka kanpineko langilea ikusi nuen, hara eta hona, bere lanetan. Baina ez nion diosalik egin. Kanpinera iritsi nintzen eguneko euripean ez bezala, igerilekuan jende askotxo zebilen, eta ez nuen harekin halako egoera batean diosalik egiteko adina konfiantzarik. Une batean gure begiradak gurutzatu egin ziren hala ere.

Aparkalekuan agurtu nuen Leire, bazkalondoan, musu arin batekin.

– Orain libre zaude interesatzen zaizun horrengana gerturatzeko –esan zidan irriz–. Zorte ona izan! Kontatuko didazu.

Bungalowerako bidean kanpineko langilearekin egin nuen topo. Lan tresna batzuk biltegian gordetzera zihoan.

– Ikusten duzu? –esan zidan–. Azkenean beti iristen da eguraldi ona ere. Pazientzia pixka bat besterik ez da behar.

– Hala da, bai. Iritsi nintzen egunean nekez espero zitekeen halakorik. Inoiz atertu ez balu bezala ari zuen euria.

– Ez du zentzurik euria madarikatzeak, beharrezkoa baitugu –esan zuen, eta besoak zabaldu eta inguruetara begiratuz jarraitu zuen hizketan–. Euririk gabe Asturias ez zen den bezalakoa izango.

# Ospa

– Ohean utzi dinat, hanka gora begira duela. Laguntzera etortzen zaigun neskak jai din gaur eta neu bakarrik ez naun senarra kalera ateratzeko gauza.

– Tira, etxean gustura badago...

– Bai. Ohean bertan garbitu dinat, eta gero telebista piztu eta urrutiko agintea eman zionat. Etxetik irteterik ez dagoenean, gustura gelditzen dun ohean. Batez ere futbola ematen badute.

– Entretenituta geratzen bada...

– Eta hi, zer moduz?

– Hainbestean. Egun onak izaten ditinat tarteka, beste batzuk kaxkarxeagoak... Ahal den moduan.

– Denok bezala. Ez dinat beti ondo dagoen inor ezagutzen. Eta okerragorik tokatzen ez zaigun bitartean, eskerrak emateko moduan gauden.

– Hala dun, bai. Ttirriki-ttarraka bada ere, bagabiltzan behintzat, eta ez dun gutxi.

Supermerkatuan nengoen, gurdia erosketez beteta eta ilaran, kutxatik pasatu eta ordaintzeko txandaren zain, bi atso haien arteko solasak, norbaitek bida-

litako seinalea balitz bezala, bat-bateko ihes itsura bultzatu nindunean.

Mugimendu bortitz batez gurdia ilaratik atera, pasilloan aurrera bultzatu eta, hura han utzita, ordaindu beharrik gabeko irteeratik jo nuen kanpora, pauso irmo eta biziz, eskuak libre nituela. Autoan sartu, musika bolumen altuan jarri eta supermerkatuaren aparkalekutik irten nintzen lehenik, Donostiatik gero, nora joan behar nuen arrastorik gabe.

Maitaneren ondora ez nintzela itzuliko, horixe zen nekien gauza bakarra.

Maitanek beti izaten zuen arrazoia. Horixe zen arazoa, edo arazoaren parte handi bat behintzat. Nekagarria eta etsigarria da beti arrazoia duen norbaitekin bizitzea, batez ere haren arrazoi sendoaren argitan norberaren ezinak, baldarkeriak eta beldurrak agerian geratzen badira. Eta nireak gordintasunez azaleratzen ziren Maitanerekin nituen eztabaida guztietan.

Modu hartan ihesean ikusi banindu, berehala esango zidakeen Maitanek, segurtasunez: “Hi ez habil niregandik ihesi. Hire ezinak, baldarkeriak eta beldurrak utzi nahi dituk atzean. Baina horiek hirekin zoa-

zak beti, heure gibela bezain heureak dituk eta”. Arrazoia izango zukeen orduan ere, beti bezala.

Sakonean, neuk ere banekien hori, baina ez nuen atzera egin nahi. Atzean etsipena baino ez nuen ikusten: emaztea, familia, zaindu beharreko adiskide sare finkoa –konplizitatean baino gehiago kortesian oinarritua–, umez eta eginbeharrez betetako etorkizuna, etxea eta bere askotariko osagarriak, otorduak, supermerkatua, lana, fakturak... Atzean, emazteak ohean telebistari begira utzi zuen gizon elbarriaren gero eta antzekoagoa izatera kondenatuta nengoen. Gainera, behin ihes egiten hasiz gero itsusia da atzera egitea.

Bidean aurrera, aldiz, autoaren barruko anonimotasun erosoan, babesean eta libre sentitzen nintzen, joan eta joan, ezertan pentsatu gabe, ezertaz arduratu gabe. Ez nintzen gelditukо autoak eztanda egin arte.

– Aitortu behar duzu zure istorioa ez dela sinesgarria.

– Baliteke. Ez dut horretan pentsatu.

– Nik sinesten dizut hala ere. Oraingoz behintzat. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

– Eskertzekoa da.

– Eta zer egingo duzu orain?

– Ez dakit. Burbuila batean nengoen eta burbuilatik atera nauzue. Orain galduta sentitzen naiz.

– Etxera itzuliko zara?

– Utziko didazue?

– Zuk diozuna egia baldin bada, bai. Nagusiak datuak egiaztatzen ari dira, eta ez baldin badago zutaz susmo txarrik izateko motiborik... Ez zara Guardia Zibilaz fidatzen ala?

– Gauza zatar asko entzun ditut Guardia Zibilaz.

– Badakit fama txarra daukagula Euskal Herrian, giro jakin batzuetan behintzat. Baina guk ez dugu inor hiltzen eta gutarikoak, aldiz, zenbat hil dituzte?

“Ez duzuela inor hiltzen?”, pentsatu nuen neure artean, baina ez nintzen ausartu nire desadostasun asaldatua erakusten.

– Ni ez naiz saltsa horietan sartzen –esan nuen, serio, neure burua kontrolatuz.

– Hala bada, laster izango zara libre.

– Ea egia den.

Pancorbo parean nengoen, Guardia Zibilaren kontrol batean geldiarazia, autoaren ondoan zutik atxikia,

metrailadorea eskuetan zuela zaintzen ninduen agente gaztearekin solasean.

Kasualitatea! ETAko kide batzuen bila zebiltzan inguru hartan, eta argi zegoen ez zidatela aise utziko joaten.

– Ba al dakizu gauza bat?

– Zer?

– Ez didazu sinetsiko, baina batzuetan zu egiten ari zarena egiteko gogoa sentitzen dut neuk ere.

– Zer egiten ari naiz?

– Dena utzi eta ospa, norabide jakinik gabe.

– Uniforme gabe, ezta?

– Bai.

– Eta metrailadorerik gabe.

– Metrailadorearekin beste kontu bat izango litzateke.

– Oso diferentea.

– Dudarik gabe.

– Arriskutsua.

– Beharbada.

– Ezkonduta al zaude?

– Bai. Oso ezkonduta. Emaztearekin, emaztearen familiarekin, etxearen hipotekarekin...

– Eta Benemeritarekin.

– Benemeritarekin ere bai.

– Ihes egiteko gogoa izaten duzu beraz.

– Munduan galduta ibili nahi nuke.

– Ezertan pentsatu gabe, ezertaz arduratu gabe.

– Horixe bera.

Guardia zibil taldearen buru egiten zuen agentea etorri zen orduan, dena ondo zegoela eta aurrera jarrai nezakeela esatera.

Ordurako, ordea, joanak zitzaizkidan autoan aurrera segitzeko gogoak. Urrutirago joan beharrik gabe, Pancorboko herrian sartu eta autoa hantxe gelditzea erabaki nuen. Aurkitu nuen aurreneko pentsioan gela bat alokatu eta paseo bat egin nuen herriko kaleetan.

Guardia Zibilak behartutako geldialdiak aldartea aldarazi bazidan ere, gustura nengoen. Ihesi jarraitzen nuen, inork niregandik espero ez zuena egiten, inondik inora ere zegokidan lekuan, gidoi logiko posible guztietatik kanpo. Unibertsoaren mugimendu harmonikoa burlaize bihurriz urratzen ariko banintz bezala.

Baina ez nekien zer egin nezakeen egoera hartan irauteko, nire ihesari arnasa ematen jarraitzeko. Horregatik, errepide ertzeko klubeko argi gorriak ikusi orduko sartu nintzen barrura.

– Gutxienez deitu egin behar diozu. Kezkatuta egongo da.

– Mezu bat bidali diot eskuko telefonotik, eta gero telefonoa itzali dut.

– Eta zer esan diozu mezuan?

– “Ondo nago. Adio, Maitane”.

– Hori besterik ez?

– Hori da Maitaneri esateko dudan guztia.

– Mezu hotz bat ez da nahikoa. Hitz egin egin behar da.

– Ez dut Maitanerekin hitz egin nahi, behintzat berak arrazoia duen bitartean.

– Eta etxea? Non biziko zara orain? Eta lana? Eta dirua?

– Langabezian nago eta Maitaneren etxean bizi naiz. Edo, hobeto esanda, Maitaneren etxean bizi nintzen. Orain, beraz, ez daukat etxerik eta ez daukat

lanik. Baina diru pixka bat bai oraindik, denbora batez lasai ibiltzeko lain.

– Txorakeria bat egiten ari zara. Seguru nago.

– Hona etortzen diren gehienak ez al dira txorakeria bat egiten ari?

– Ez da gauza bera. Kasu egidazu, nik badakit honetaz. Zu...

– Ni... Zer?

– Zuk ez duzu benetan gora igo nahi.

– Nahiko ez dut ba! Oso ederra zara!

– Oi, nire umea!

Badakit zaila dela sinestea, baina musu samur batekin konbentzitu ninduen goiko pisura igo gabe klubetik alde egiteko.

Pentsiora itzuli eta ohean etzanda telebistari begira geratu nintzen loak hartu ninduen arte. Urduri eta kezkati nengoen neure egunerokotasunetik urrun sentitzen nintzelako, baina aldi berean barne bake batek lasaitzen eta gozatzen zidan barrena. Gustura nengoen.

Hasieratik zuen arrazoia Maitanek. Gero eta arrazoi gehiago eta handiagoak zituen. Baina nik halaxe segitu nahi nuen, inork niregandik espero ez zuena egiten, inondik inora ere ez zegokidan lekuan, gidoi lo-

giko posible guztietatik kanpo, unibertsoaren mugimendu harmonikoa burlaize bihurriz urratzen.

– Baina zu zergatik etorri zara hona, dirua irabazteko ez bada?

– Eta zu? Zuk ez duzu kobratzen ala?

– Ni kazetaria naiz. Nire lana egiten ari naiz.

– Zuk irabazitakoa bezain legezkoa eta garbia da nik irabazten dudan dirua. Bakoitzak bere baliabideak ditu.

– Zure baliabide nagusia gaizki operatutako bi titi dira, bakoitza alde banatara begira.

– Hartuko zenituzke zuk nire titiak.

– Zure titiak? Zertarako?

– Maiteko zaituen norbait bilatzeko. Baina, ondo pentsatuta, nire titiak baino zerbait gehiago beharko zenuke horretarako. Berriro jaiotzea gutxienez. Itsusiagoa eta ergelagoa ezin izango zinateke eta.

– Eskerrik asko. Espainia osoak daki zure irainak laudorioak direla jende argiaren belarrietan.

– Espainia osoak dakiena da usteltzeraino dituzula mingostuta erraiak, eta ez dela jaio zu jasango zaituen amaren umerik.

Terapia eraginkorra da tele-zaborra deitzen den hori. Apaltasun lezio gogoangarriak eskaintzen dizkizu. Tele-zaborrari begira, jabetzen naiz bizitza osoan gogor saiatuta ere inoiz ezin izango naizela giza ergelkeriaren eta doilorkeriaren gailur ikaragarri horietara iritsi, eta barne miseriaren heroi horiekiko mirespenez eta esker onez itzaltzen dut beti telebista. Halaxe egin nuen gau hartan, loak hartu aurretik, Pancorboko Desfiladero pentsioan.

– Biharamunean, pentsioan gosaldu eta gero, Donostiara itzultzea erabaki ninan. Amairik gabeko nobela izan behar zuena mikroipuinean geratu zunan.

– Gure txortaldien antzera.

– Badakin krudela izaten gero!

– Baina arrazoia diat.

– Beti bezala.

– Eta... zer? Gustura geratu haiz hire ihesaldiarekin?

– Ez dinat damurik.

– Ezin esan ba urrutira iritsi haizenik: Pancorbora. Ezta gauza handirik egin duanik ere: guardia zibil batekin hitz egin, putiklub batean sartu eta larrua jo

gabe irten, eta tele-zaborra ikusi goizaldera arte ostatu kutre batean. Eta amaieran, azak ontzeko... erre-matea!

– Baina egin beharrekoa ninan. Buruaren osasunerako.

– Buruaren osasunerako, hauxe duk orain hik premiazkoena: telebistaren urrutiko agintea. Gaur futbola ematen ditek.

– Ez al naun kalera atera behar?

– Gaur ezin diat. Supermerkatura joan behar diat. Hutsik zeukaagu frigorifikoa.

– Supermerkatura? Kontuz han entzuten ditunan solasaldiekin. Alaiena ere adoregabetzeko modukoak izaten ditun.

– Adoregabetu? Adoregabetu hik egiten nauk. Apaiz zahar baten sotana urratuak ere hik baino bizipoz handiagoa kutsatzen dik.

– Hori ere ba al dugu?

– Bai ba. Hori ere bai.

– Ezertarako balio al dut nik, hire ustez.

– Bai. Ba al dakik zertan hagoen edonoren gainetik?

– Zertan?

– Autoa gidatzen.

– Autoa gidatzen?

– Zuzengune luzea, eguraldi bikaina, trafiko gutxi, zuhaitz bakarra bide bazterrean... eta huraxe jo bete-betean! Sekulako abilidadea!

– Esan dinat: gurpila lehertu zunan, hantxe, justu zuhaitz madarikatuaren parera iristen ari nintzenean.

– Bale. Behingoz arrazoia emango diat. Ez haiz txofer txarra. Zorte txarra izan duk, besterik ez. Bejondeiala! Banoak supermerkatura. Adio, Zigor.

– Maitane! Hanka gora begira jartzea ahaztu zain! Maitane! Maitane!! Maitane!!!